

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Durangoko Udala

Ayuntamiento de Durango

2015





AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURDURAK.....	7
I. SARRERA.....	9
II. IRITZIA.....	10
II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA.....	10
II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA.....	11
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	12
III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA.....	12
III.2 LANGILERIA.....	13
III.3 KONTRATAZIOA.....	14
III.4 TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK	16
III.5 BERANKORTASUNA, GARDENTASUNA ETA BESTELAKO ALDERDIAK	17
IV. FINANTZA ANALISIA.....	18
V. URTEKO KONTUAK.....	21
V.1 UDALA.....	21
V.2 UDAL ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA SOZIETATE PUBLIKOAK	24
ALEGAZIOAK	27
BOTO PARTIKULARRA	51



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ABREVIATURAS	53
I. INTRODUCCIÓN.....	55
II. OPINIÓN.....	56
II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LEGALIDAD.....	56
II.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES	57
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....	58
III.1 PRESUPUESTO Y CONTABILIDAD.....	58
III.2 PERSONAL.....	59
III.3 CONTRATACIÓN.....	61
III.4 TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES.....	62
III.5 MOROSIDAD, TRANSPARENCIA Y OTROS ASPECTOS.....	63
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	64
V. CUENTAS ANUALES	67
V.1 AYUNTAMIENTO.....	67
V.2 ORGANISMOS AUTÓNOMOS Y SOCIEDADES MUNICIPALES.....	70
ANEXOS	73
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y legislación aplicable	73
A.2 Presupuesto y sus modificaciones	74
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos.....	75
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones.....	76
A.5 Ingresos patrimoniales y por enajenación de inversiones reales.....	77
A.6 Gastos de personal.....	78
A.7 Compra de bienes corrientes y servicios e inversiones reales.....	80
A.8 Transferencias y subvenciones corrientes concedidas.....	82
A.9 Operaciones extrapresupuestarias y pasivos financieros.....	84
A.10 Deudores presupuestarios	85
A.11 Conciliación resultado presupuestario y patrimonial	86
A.12 Organismos Autónomos y Sociedades municipales.....	87
A.12.1 Ingresos por transferencias y subvenciones corrientes	87
A.12.2 Personal.....	87
A.12.3 Compras de bienes corrientes y servicios.....	88
A.12.4 Landako Erakustazoka, SA en liquidación.....	88



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.13 Análisis de contratación	89
A.14 Indicadores financieros y presupuestarios	91
ALEGACIONES	93
VOTO PARTICULAR	117

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 27a

Vitoria-Gasteiz, 27 de febrero de 2017





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

20/2012 ELD	20/2012 Errege Lege Dekretua, Aurrekontuaren Egonkortasuna eta Lehiakortasunaren Sustapena Bermatzeko Neurriei buruzkoa.
5/2013 FA	5/2013 Foru Araua, Bizkaiko Toki Erakundeen Aurrekontuaren Egonkortasun eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzkoa.
BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EAOL 2015	36/2014 Legea, 2015erako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
EE.AA	Erakunde autonomoak.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
LHL	2/2006 Legea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.
LUO	Lurraren Udal Ondarea.
LZ	Lanpostuen Zerrenda.
OPI	Osagarri Pertsonal Iragankorrak.
SPKLTB	3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina.
TAAIL	27/2013 Legea, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasun neurriei buruzkoa.
TAOAL	7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arazten dituen.
Udalkutxa	Udal Finantzaketarako Foru Funtza.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraiki, Durangoko Udalaren 2015eko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

HKEEk gauzatutako Durangoko Udalaren Kontu Orokorraren aurreko fiskalizazio lana 2009ko ekitaldiaren gainekoa izan zen.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea kaltetu gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako atal hauek besarkatzen ditu: Udalaren, bere erakunde autonomoen eta udal sozietateen Egoeraren Balantzea, Galera-Irabazien Kontua, Oroitidazkia eta Aurrekontuen Likidazioa.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi dela ere, fiskalizazioan zehar sortu diren akatsak Txosten honetako III. idazpuruan daude jasoak.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Durangoko udalerriak 28.899 biztanle zituen 2015eko urtarrilaren 1ean eta Udalean, udal administrazioaz gain, honako erakunde hauek besarkatzen ditu:

- Astarloa Kulturgintza erakunde autonomoa, udal liburutegia eta kultura jardueren programak kudeatzen dituena.
- Durango Kirolak erakunde autonomoa, udalaren kirol instalazioak kudeatzen dituena.
- Bartolome Ertzilla Musika Eskola eta Erdi Mailako Kontserbatorioa erakunde autonomoa, aurrerantzean Musikaren erakunde autonomoa.
- Durangoko Udal Euskaltegia erakunde autonomoa, helduen euskalduntze eta alfabetatzea helburu duena.
- Landako Erakustazoka, SA, likidazioan (% 100), aurrerantzean LESA, Landako erabilera anitzeko esparrua eta aparkalekua kudeatzen dituena.
- Durango Eraikitzen, SA (% 100), alde zaharraren hirigintzako zaharberritze-programa kudeatzen duena.

Gainera, Durangoko Merinazgoaren Mankomunitateko eta Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoko partaide da.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

LANGILERIA

1. Udalak eta Musika eta Durango Kirolak erakunde autonomoek hiru kontratazio mugagabe egin dituzte 2015eko EAOLaren 21. artikulua urratuz, zeinak langileria berria kontratatzea eragozten duen. Gainera, hautaketa prozesuetako iragarkien goiburuek lan-poltsa bat osatzeko zirela zioen eta deialdian adierazi zen txanda-kontratu bat egiteko baliatuko zirela, mugagabea izango zela zehaztu gabe.

KONTRATAZIOA (ikus A.13)

2. Durango Kirolak erakunde autonomoaren lehendakariak 2015ean kirol ikastaroak emateko kontratua esleitu zuen, aleko prezioetan 495.868 euroren balioetsitako zenbatekoan esleitu zena. Kopuru honek erakundearen baliabide arrunten % 10 gainditzen zuenez gero, Zuzendaritza Batzordeak esleitu behar zukeen.
3. Ondotik zehaztutako hornidura eta zerbitzuak zuzenean esleitu dira, zegokion kontratazio prozedura izapidetu beharrean, publikotasun eta lehia printzipioei meneratua. Hona hemen 2015eko kostua zehatuta:

	Euroak milakotan		
	UDALA	KIROLAK	KULTURGINTZA
Energia elektrikoa.....	436	281	74
Gas naturala.....	-	182	-
Aseguruak.....	138	-	-
Telefonia-zerbitzuak.....	94	-	-
GUZTIRA	668	463	74

Epaitegi honen ustetan, Durango Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeek, 1etik 3ra bitarteko paragrafoetan aipatutako lege haustek alde batera, zuzentasunez bete dute 2015eko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Hona hemen 2015eko abenduaren 31n gastu orokorretarako Diruzaintza Geldikinean, data horretan itxitako Egoera Balantzean eta Funts Propioetan eragina duten doiketak:

Eransk. Kontzeptua	Diruzaintza Geldikina	Euroak milakotan		
		Ondarekoa		Funts Propioak
		Aktiboa	Pasiboa	
15.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko eskubideak				
A.3 Ura hornitzeko tasa, 2015eko 3. eta 4. hiruhilekoa	-	650	-	650
15.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko obligazioak				
A.8 Suteen aurkako foru zerbitzuari ekarpena, 2015	(106)	-	106	(106)
A.8 2015eko laguntzak, etxebiz. alokatu eta haurtz. eta gaztaroko jarduerak	(81)	-	81	(81)
Beste batzuk				
A.4 Diru-lag. finantzak. desbideratzea 2015eko enplegu sustap. eta 2 obra ..	(215)	-	215	(215)
A.5 Hirugarrenen konturako urbanizazio kuotak aurrekontuan.....	(102)	(69)	33	(102)
A.9 Faustegoiena orubearen salmenta, geroratutako zatia epe luzera kobratz.	(805)	-	-	-
A.9 2015 aurreko Udalkutxako likidazioeng. ordaintzeko saldoa erregulariz. .	260	-	(260)	260
A.9 Erabili gabeko maileguen kontzep. aitort. sarreragat.saldoak	(2.338)	(2.338)	(5.166)	2.828
A.10 Ekit.itxietako sarreren finantzaketaren desbideratzea.....	(1.280)	(540)	740	(1.280)
A.12 LESAn finantza inbertsioen balorazioaren zuzkidura	-	(178)	-	(178)
GUZTIRA	(4.667)	(2.475)	(4.251)	1.776

2. Udalak 2000n berrikusi zituen bere ibilgetuaren balorazioak eta urte horretatik aurrera idazpuruetakoko saldo globalak aldatu zituen aurrekontuen kontabilitatean jasotako informazioa baliatuta. Hala eta guztiz ere, ez du ibilgetua eragiten duten egintza ekonomiko guztien kontularitzako erregistroa bermatuko duen jarraipenik egiten eta zehazki, ez du ibilgetuaren elementu bakoitzeko xehapenik, ez zuzkiduren kalkulurik egiten. Horregatik guztiagatik, ez dezakegu zehaztu ea ibilgetuko kopuruek 15/12/ 31n Udalaren ondasun eta eskubideen egiatzko egoera islatzen duten.

Epaitegi honen iritzira, 1. eta 2. paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Durangoko Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeen kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2015eko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa, 2015eko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere jaso dira.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- Udalak ez zuen 2015erako aurrekontua onartu eta ez zitzaion Udalbatzari zegokion aurrekontu proiektua aurkeztu onartu, zuzendu edo atzera botatzeko. 2015eko Kontu Orokorra onartzeke dago txosten hau idatzi dugun datan.
- Udalak 2015eko aurrekontura 4,1 milioi euroren gastu kredituak txertatu zituen, jada 2014ko aurrekontura txertatu zirenak, eta hitzartu gabeko gastu arruntetarako kredituak, 715.427 eurorenak; ordea, aurrekontu-araudiak kreditu mota hau txertatzeko bide ematen du soilik helburudun diru-sarrerekin finantzatzen direnean eta ezaugarri hori ez da egiaztatu.

Egoera hau bera gertatzen da Durango Kirolak eta Musikako erakunde autonomoetan, hurrenez hurren, 193.976 eta 6.748 euroren txertaketa jarraituak egin dituztenak. Hitzartu gabeko gastu arruntetarako kredituei dagokienez, 164.479 euro egin zituzten lau erakunde autonomoetan.

- 2015eko likidazioak ez zuen zegokion Konpromisoen egoera besarkatzen, etorkizuneko aurrekontuen kontura hartutakoei buruzko informazioa emango zuena; konpromiso horiek 646.813 euro egin zituzten eta baziren hitzartutako diru-sarrerak ere, 376.380 euroren zenbatekoan.
- TAO zerbitzua kudeatzeko kontratuak aurreikusten du esleipendunak zerbitzuko sarreren ehuneko bat ingresatu beharko duela -38.364 euro 2015ean-, eta diru-bilketaren gainerakoa emandako zerbitzua ordaintzeko baliatuz; Udalak ez du gauzatutako konpentsazioa erregistratzen. Enpresa esleipendunak kudeatutako parkimetroen diru-bilketa 674.509 eurorena izan zen eta egindako konpentsazioak berriz, 636.144 eurorenak.
- Udalak aurrekontuz kanpo erregistratu zituen hirigintzako planeamendu kontzeptuan egindako ordainketak eta lehenagoko urteetan gauzatutako sektore arteko konpentsazioak, 2015eko abenduaren 31n 302.108 euroren kobratzeko saldoa eragin dutenak. Egokiagoa da eragiketa mota hau aurrekontuan erregistratzea, baldin eta zorrak esanguratsuak badira eta kobratzeko epe luzeak aurreikusten badira. Urtebetetik gorako antzinatasuna duten aurrekontuz kanpoko beste saldo batzuk azaleratu dira eta komeniko litzateke horien kobragarritasuna aztertzea.
- Udalak 2015ean 2016an agindutako hiru mandaturen ordainketa erregistratu zuen, 1,4 milioi euroren zenbatekoan; ordea, egiaz ordaintzen den ekitaldian erregistratu behar litzateke.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoak ur-horniduragatiko tasa biltzen du, 2015ean 1,3 milioi euroren diru-sarrerak eragin zituena. Udalak ez ditu tarifa aldaketak onartu, ez eta kobrantza-erroldak ere; orobat, ez da gauzatu Udalari ematen dion diru-bilketa zerbitzuaren kontzeptuan Partzuergoari egin beharreko mandatua.
- Udalaren lan baldintzak arautzen dituen erabakiak bertako langileen alde aurreko erretiroagatiko 10 eta 27 hilekoren ordainsarien ordainketa ezartzen du; horren ondorioz, langile bati 2015ek urtean 47.117 euroren ordainsariak ordaindu zaizkio. Kontu Orokorraren Oroitidazkian ordainsari osagarri mota hau existitzen dela jakinarazi beharko litzateke.

Udal erakunde autonomoak eta sozietate publikoak

- Aurrekontua egikaritzeko udal araudiaren 23. artikulua agintzen du erakunde autonomoen aurrekontuko aldaketek metatutako % 5 gainditzen denean Udalbatzak onartu beharko dituela; ez dute, baina, lau erakunde autonomoek aurreikuspen hau aintzat hartu.
- Erakunde autonomoek euren ibilgetuen balorazioak 2007an berraztertu zituzten. Ondoko inbertsioek idazpuruetakako saldo globalak aldatu zituzten, txertaketen elementuen araberako xehapenik izan gabe. Amortizazioa ere osotasunean kalkulatu da. Komenigarria litzateke 2007ko inbentarioa gaurkotzea.

Gainera, jarduera udal jabetzako eraikinetan gauzatzen dute, erakunde autonomoetara atxikiak daudenak, eta horien kostua eta amortizazioa ez dira beren kontuetan barne hartzen; egitate hori Oroitidazkian berariaz adierazi behar litzateke.

- LESAk 2015eko abenduaren 1ean automatikoki desegiteko kausa egin zuen; inguruabar hau Batzorde Nagusiak egiaztatu behar luke eta Merkataritza Erregistroari jakinarazi.

III.2 LANGILERIA

- Udalak indarrean ditu bitarteko langileen 3 kontratazio 2006 eta 2009az geroztik. Hauetako bitan obrako lan kontratuek ez dute iraupena zehazten eta bestean, bitarteko izendapena trenbidea lur-azpiratzeko lanetan oinarritu zen, 2012an amaitu zirenak. Gainera, 2014an langile batekiko lan harremana mugagabe bihurtzen zuen epaia ebatzi zen, zeinari kontratuak bata bestearen atzetik egin zitzaizkion. Udalak kasu hauek aztertu eta LZ aldatu behar luke edo egoera hauek zuzentzeko egitekoen esleipena berrantolatu.
- Indarreko LZ 2013an onartu zen urteko aurrekontuarekin batera, egindako aldaketak batera jaso gabe (lanpostu berri bat eta aldaketak beste 9tan) eta espedientean justifikatu gabe.
- Lanpostu zerrendak lanpostuak kategoria eta kidegoaren arabera zerrendatzen ditu, baina ez ditu ordainsari oinarritzko (soldata eta antzinasuna) eta osagarri dagozkien kreditu zuzkidurak xehatzen eta ez ditu aparteko ordainsariak eta bestelako hartzeoak kuantifikatzeko gauzatutako balioespen globalak adierazten.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- 2015erako Udalaren Lan Baldintzak Arautzen dituen Akordioak Osagarri Pertsonal Iragankorraren-Antzinasunaren zenbatekoa gehitu zuen, nahiz indarreko aurrekontu-araudiak ez duen 2014koarekiko aldaketarik egitea onartzen.
- 2015ean zehar Udalak aldi baterako 23 langile kontratazio egin zituen eta turismoko informatzaileen 6 kontrataziotan 2007 eta 2008ko lan-poltsa zaharrak baliatu zirela ikusi da. 3. adinekoak artatzeko teknikari baten 2 kontratazioak 2003an gauzatutako hautaketa-prozesu bat baliatuta gauzatu ziren eta kudeaketa-teknikari bat 2008an kontratatu zen, zeinari kontratua urtero berritzen zaion prozesu berririk abiarazi gabe. Lan-poltsen kudeaketa arautu behar litzateke, bereziki gauzatutako prozesuaren ebidentzia utziz.

Udal erakunde autonomoak eta sozietate publikoak

- 4 erakunde autonomoen aurrekontu-plantillak guztira aurreikusitako ordainsariak xehatzen zituen; ez zituen, baina, ordainsari kontzeptuak banakatzen.
- Bi erakundetan Lanpostu Zerrendan bi zuzendari postu eta ikasketa-buru postu bat barne hartzen ziren, aurrekontuan jaso ez direnak 3 irakasle lanposturi metatzen zaizkielako.
- Musikako erakunde autonomoak aldi baterako 26 musika irakasle kontratu gauzatu zituen zuzenean, aldi baterako langileen lan-poltsak baliatu gabe. Durango Kirolak erakunde autonomoak aldi baterako 25 begirale-sorosle eta harrera-lekuko langile kontratazioak egin zituen, lan kategoria horietarako eraturako lan-poltsak baliatu gabe. Azkenik, Astarloa Kulturgintza erakunde autonomoak 10 kontrataziotan baliatutako lan-poltsak 2006 eta 2007an sortutakoak dira eta komeni da horiek berritzea.
- LESAk 2015eko abenduaren 31n indarrean zituen 2010 eta 2011n gauzatutako obrako hiru lan-kontratu. Kontratuen iraupenak adierazten du garaturako egitekoek iraunkortasun izaera dutela eta honenbestez, egoera hori zuzendu egin behar da.

III.3 KONTRATAZIOA

2013ko abenduan lizitazioak eta emaitzak Sektore Publikoko Kontratazioaren Plataforman argitara emateko obligazioa indarrean sartu zen, bai zuzenean bai udal plataformarekiko lotura bidez; udalak, baina, ez du betekizun hori bete.

Udalak ez ditu udal kudeatzaileen eta zerbitzu kontratuen esleipendun diren enpresen arteko harremana argitzeko eskatutako jarraibideak ebatzi. Honela, aztertutako 3 kontraturen pleguek (1, 2 eta 6 zk.) agintzen zuten aurreko kontratistaren langileria subrogatu behar zela; ordea, betekizun hau enpresa eta langileen arteko sektoreko hitzarmenetatik soilik erator daiteke.

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden 6 kontratu nagusiak aztertu ondoren, honako alderdi hauek azaleratu zaizkigu (ikus A.13):

- Guztira 3 milioi euroan esleitutako bi kontratutan (1 eta 2 zenbakiak), eskaintza ekonomikoak balioztatze erabilitako formulek mugatu egiten zuten beheranzko



prezioaren zenbatekoa. Gainera, bigarren kontratuan esleipen irizpideak orokorrak dira eta ez dira zehazten ez balioztatuko diren alderdiak, ez balorazio sistema bera ere (A1 akatsa).

- Kontratuen esleipenari ez zitzaion publikotasunik eman edo legezko epeakiko atzerapenez eman zitzaion bost kontratutan (1, 2, 3, 5 eta 6 zk. espedienteak), guztira 5,9 milioi euroren zenbatekoan esleitu zirenak (B1 akatsa).
- Guztira 6,1 milioi euroan esleitu ziren 3 espedientetan (1, 2 eta 4 zenbakiak), kontratugileek gordailatutako bermeak esleitutako zenbatekoaren % 5 baino txikiagoak ziren, izan ere ekitaldi bakarreko kostua hartu zen aintzat. Kontratueterik lehenengoan pleguek aurreikusitakoa baino berme txikiagoa onartu zen (B2 akatsa).
- TAO kudeatzeko kontratuan, 2,5 milioi euroan esleitu zenean, balio judizioa eskatzen zuten esleipen irizpideek garrantzi handiagoa zuten formula bidez kalkulatzeko ziren haiek baino; horren aurrean, pleguek adituen batzorde baten edo berariaz gaitutako erakunderen baten laguntza aurreikusi behar zuketean. Txosten teknikoak guztizko balioak esleitzen zizkien 3 irizpideei, pleguetan zehaztutako azpi-irizpideen balorazioa xehatu gabe.
- Udal eraikinak garbitzeko kontratuaren esleipena, 3,1 milioi eurorena, eskaintzak aurkezteko epemuga ondoren 6,5 hilabetetara gauzatu zen; araudia, ordea, gehienez 3 hilabeteko epea aurreikusten du esleipenerako.

2015ean eraikinak garbitzeko kontratua lizitatu zen; aurrekoaren indarraldia 2015eko ekainaren 30ean amaitu zen eta luzatu egin zen, Udalak eta Durango Kirolak erakunde autonomoak zuzenean esleitu ziotelarik zerbitzua aurreko enpresa esleipendunari; zerbitzuaren kostua 2015eko bigarren seihilekoan, hurrenez hurren, 527.429 eta 153.561 eurorena izan zen.

Beste erosketa batzuk

2015eko irailaren 29an Udalbatzak EAĒren ordezkari bat onartu zuen 5 ikasturtetan oinarrizko lanbide heziketa emateko, 3,4 milioi euroren zenbatekoan, diru-laguntza bidez finantzatu zena. Udalak urriaren 30ean zerbitzu hori aurreko ikasturteetan Durangoko Mankomunitateari eman zion enpresa kontratatu zuen eta irailaren 1etik aurrerako indarraldia aitortu zion, nahiz zerbitzuaren esleipena beranduagokoa izan zen. Gainera, aipatutako Udalbatzaren erabakiak ez zuen aurrekontua aintzat hartu.

Erosketa txiki modura izapidetutako erosketak berrikustean ikusi da Udalak, Astarloa Kulturgintza eta Musikako erakunde autonomoek eta LESAK zuzenean esleitu dituztela prozedura negoziatu bidez izapidetu behar ziratekeen zenbait kontratu:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	UDALA (*)	ERAK.AUT. eta LESA (*)
Gas naturalaren hornidura	41	-
Komunikazio eta bideoz zaindutako sistemen mantentze lanak	43	-
Laneko segurtasun eta osasunean aholku ematea	38	-
Eraikinen garbiketa 2. seihilekoan (Musika eta Astarloa).....	-	86
Gas instalazioaren mantentze lanak (Durango Kirolak)	-	45
Segurtasun-zerbitzua (LESA)	-	33
Mahai eta aulkien alokairua (LESA)	-	32
Argindarraren horniketa (LESA).....	-	26

(*) Erosketen kostua 2015ean.

Gainera, Udalak banaka izapidetu zituen kudeaketa softwarearen urteko mantentze-lana eta bost hobekuntza, guztira 105.844 euroren zenbatekoan; egokiagoa litzateke kudeaketa sistemen garapena elkarrekin planteatzea. Berebat, gomendagarria da garraio eta muntaia zerbitzuak batera planteatzea, 2015ean 44.029 euroren kostua izan zutenak.

Azkenik, Udalak bide garbiketa eta zabor bilketa kontratua zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratu modura bereizi zuen; 2009an zortzi urtetarako esleitu zen eta 2015ean 2,2 milioi euroren gastua eragin du; alabaina, duen izaerari erreparatuta, zerbitzu kontratu bat litzateke, gehienera 6 urteko indarraldiarekin.

III.4 TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

- Durangoko Merinazgoaren Mankomunitateari 2015ean egindako ekarpenek, 1,5 milioi eurorenak, bat datoz aurrekontu egindako zenbatekoarekin, aurrekontua egikaritzeko udal arauaren irizpidearen arabera. Mankomunitateak kide diren udalen ekarpenak aurrekontua oinarri hartuta kalkulatu dituzte eta 2015ean Udalak aitortutakoa baino txikiagoa zen 59.724 euroren zenbatekoan. Berebat, programen banaketan ere aldeak daude. Mankomunitateko Estatutuek diote udalen ekarpenek zerbitzuen kostuak artatuko dituztela, kalkulu eta likidazio prozedura xehaturik zehaztu gabe; prozedura hori Udalaren egikaritze-oinarrietan edo laguntzak emateko urteroko ebazpenetan gara daiteke.
- Mendeko erakundeetara egiten diren transferentziak diru-zaintzako beharrezan arabera egin behar dira, aurrekontuko egikaritze arauaren arabera, eta ez aurrekontua oinarri hartuta kalkulatuak kopuru bereko aldizkako ordainketak egin; horrek eragin du 2015eko abenduaren 31n erakunde autonomo guztien artean 1,6 milioi euroren geldikina izatea.
- Udalak ez du Diru-laguntzen Plan Estrategiko nahitaezkoa onartu. Gainera, aurrekontuaren izendapen izendunetan, laguntzen hartzailea eta kopurua adierazteaz gain, helburua ere adierazi behar da.
- Baqué Fundazioari emandako 42.000 euroren diru-laguntza izenduna erakunde honek udalerriko 6 kirol erakunderi banatu zien, ez hitzarmen arautzailean ez agiri



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

justifikagarrian zehazten ez diren irizpideen arabera. Antzeko egoera gertatzen da Asociación Junta de Ayuda a Enfermos de Durango-Iurretari emandako 91.118 euroren diru-laguntza izendunekin, zeinak bazterkeria egoeran dauden kolektiboei laguntzak emateko programa bat finantzatzeko baliatu diren, hitzarmen arautzailean zehaztu ez diren betekizunen arabera. Laguntza hauek Udalak banatu behar ditu eta Fundazioa eta Elkarteak erakunde laguntzaile izenda ditzake.

- Udalak bi guraso-elkarteri bi ikastetxetako energia eta mantentze gastuak subentzionatzen dizkio, guztira 175.583 milioi euroren zenbatekoarekin. Gastu hauek Udalarenak dira eta udal zerbitzuek kudeatu behar lituzkete.
- Udalak ez zion publikotasunik eman 9 diru-laguntza zuzeni eta deialdi bitartez deitutako beste 22ri, guztira 175.809 euroren zenbatekoan, nahiz banaka 3.000 euroren kopurua gainditu zuten.
- 15 onuradunek aurkeztutako frogagiriak aztertu ondoren, laguntza zuzen nagusiaren frogagirian ikusi da fakturek diru-laguntzaren zenbatekoa gainditzen duten arren (14.588 euro), izenpetu gabeko hartu izanaren agiriak barne hartu direla, ez zela gastuen nahitaezko zerrenda jaso eta jarduerak eragindako diru-sarrerak ere ez zirela zehazten.

III.5 BERANKORTASUNA, GARDENTASUNA ETA BESTELAKO ALDERDIAK

- Udalak ez du ordainketa epeen gaineko hiruhileko jarraipenik egin; alabaina, ordainketak onartu zirenetik finkatutako 30 eguneko epea % 6,6k gainditu zuela 2015ean kalkulatu du. Ehuneko hau % 1,6koa da erakunde autonomoetan. Durango Eraikitzen, SAn ordainketa guztiak epean egin ziren eta LESAn, ordainketarako batez besteko epea 49 egunekoa izan zen 2015ean.
- Lau erakunde autonomoetako langileen kudeaketa eta kontratuen izapidea udal administrazioko zerbitzu orokorrek egiten dute eta gainerako alderdiak Erakunde Autonomoen Gerentzia izeneko udal zerbitzu batetik koordinatzen dira. Erakunde autonomo bakoitzak duen autonomia mugatua aintzat hartuta, komenigarria dirudi horien kopurua murriztea.
- Udalak ez du hirigintzako hitzarmenen nahitaezko erregistroa egiten.



IV. FINANTZA ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua.

FINANTZA ANALISIA	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	Urtea			Urtea		
	2013(*)	2014(*)	2015	2013	2014	2015
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	11.901	12.065	11.569	415	419	400
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	15.157	16.073	15.811	528	558	547
Ondare sarrerak (5. kap.).....	134	425	317	5	15	11
A. Diru-sarrera arruntak	27.192	28.563	27.697	948	992	958
Langile gastuak (1. kap.).....	9.596	8.711	8.986	334	302	311
Ondasun arrunten erosketa eta zerbitzuak (2. kap.).....	8.787	8.462	8.722	306	294	302
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	7.963	8.374	7.947	278	291	275
B. Funtzionamendu gastuak	26.346	25.547	25.655	918	887	888
Aurrezki gordina (A-B)	846	3.016	2.042	30	105	70
- Finantza gastuak (3. kap.).....	24	15	9	1	1	-
Emaitza arrunta	822	3.001	2.033	29	104	70
- Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	-	133	534	-	5	18
Aurrezki garbia	822	2.868	1.499	29	99	52
Inbertsio errealeen besterentzea (6. kap.).....	1.079	(515)	492	38	(18)	17
Jasotako kapital diru-laguntzak (7. kap.).....	210	209	124	7	7	4
- Inbertsio errealak (6. kap.).....	2.678	2.644	1.094	93	92	38
- Emandako kapital diru-laguntzak (7. kap.).....	21	10	14	1	-	-
Kapitaleko eragiketen emaitza.....	(1.410)	(2.960)	(492)	(49)	(103)	(17)
Eragiketa ez finantzarioen emaitza (1etik 7rako kap.)..	(588)	41	1.541	(20)	1	53
Diruzaintza geldikin likidoa	10.388	9.468	10.432	362	329	361
Gastu Orokorretarako Diruzaintza geldikina	10.196	9.276	10.318	355	322	357
Zorpetzea 12.31n	2.768	2.635	2.101	96	91	73

(*) HKEEk fiskalizatu gabeko datuak.

Sarrera arruntak: 2014an % 5eko gorakada izan zuen, fiskalizazio-gai izan den urtean behera egiteko, baina % 1,9ko hobekuntza hirurteko lehenengo urtearekiko.

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak:** Zerga nagusien tarifek bere horretan eutsi zioten eta ez da aldaketa esanguratsurik izan, Eraikuntza, Instalazio eta Obren Zergan izan ezik, non 2014an unean uneko igoera izan zuen. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan 2015ean sarrerek behera egin zuten aurreko urteetako kobrantzen itzulketak jakin batzuen ondorioz.
- **Transferentziak eta diru-laguntzak:** % 4,3 egin dute gora 2013-2015 aldian osagai nagusi duten Udalkutxa igo izanaren ondorioz; izan ere, gorakada izan zuen 2014an eta hurrengoan zenbatekoa jaitsi, baina 2013koarekiko % 2ko igoerarekin halaz guztiz ere. EAE eta BFaren diru-laguntza arruntek eragindako diru-sarrerek ere igoerak izan dituzte hirurtekoan.



Funtzionamendu gastuak: % 2,6 egin dute behera 2013 eta 2015 bitartean, beherakada 2014an egin zuelarik 2015ean igoera txiki bat erakutsiz:

- **Langile gastuek** % 6,4 egin dute behera aztertutako aldiaren lanpostuen balorazioaren ondorioz eta 2012ko abenduako aparteko ordainsariaren zati baten ordainketaren ondorioz, bere horretan eutsi diotelarik ordainsariek eta kotizazioek, pentsio osagarrietarako ekarpenak salbu, zeinak 2014an hasi diren egiten.
- **Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketek** ez dute aldaketarik izan eta behera egin dute aztertutako aldiaren erdiko urtean, konponketa eta zaintza eta azterketa teknikoaren kontu-sailetan bildu dena.
- **Erakunde autonomo eta mankomunitateari egindako transferentziek** ez dute aldaketarik izan, baina 2014an enpresei diru-laguntzak eman zaizkie langileak kontratatuzeko, EAEk finantzatzeko enplegu-plan baten arabera. Urte horretan bertan, igoerak izan dira irabazi asmorik gabeko kirol erakundeei eta haurtzaro eta gaztediaren alorrean emandako diru-laguntzetan, 2014an diru-laguntzengatik gastu igoerak ekarri dituela.

Aurrezki gordina: Aldagai honek hobekuntza nabarmena izan du 2013-2015eko aldiaren, nahiz lehenengo ekitaldiko soldata-gastu ezohikoen eragina kenduz gero, bariazioa txikiagoa den, gastuari eutsi eta diru-sarrerak gehitu izanaren ondorioz.

Aurrezki garbia eta zorpetzea: Hirurtekoan finantza zamaren eta zorpetze saldoaren jatorria BFari Landako Erakustazoka eraikinaren eraikuntzagatik zorpetutakoan datza; 2015ean ordainketa egutegi berri bat adostu dute zorra hurrengo 4 urteetan itzultzea aurreikusten duena. 2015eko aurrezki garbiak sarreraren % 5,4 egin zuen. BFari 2015eko abenduaren 31n zorpetutako zenbatekoak urte horretako sarrera arrunten % 7,6 egin zuen.

Kapital eragiketen emaitza: Lehenengo bi urteetako inbertsio ahalegina (sarrera arrunten % 9) % 50 baino gehiago murriztu da 2015ean. Finantzaketan garrantzia izan dute aprobetxamenduen monetarizazioak 2013an eta udal lursail batzuen salmentak 2015ean; honela, bada, 6. kapituluko diru-sarrerek aztertutako aldiaren inbertsioen % 16 egin dute.

Diruzaintza geldikina: Magnitude honek bere horretan eutsi dio, izan ere, kapital eragiketarako eragiketa arrunten superabitarekin finantzatu dira. HKEEren doiketarako aintzat hartuta ere, 2015eko abenduaren 31n diruzaintza erabilgarria 5,6 milioi euroena litzateke, diru-sarrera arrunten % 20, eta hirurteko kapitaleko eragiketen defizita baino handiagoa; hori nahikoa da 2015eko abenduaren 31n hitzartutako kredituen txertaketak finantzatzeko, 3 milioi euro egin zutenak.

Ondorioa: Eragiketa arruntek sortutako aurrezki gordina hobetu egin da hirurtekoan sarrek igo direlako, gastuei eutsi zaielako eta hirurtekoaren lehenengo urtean ezohiko gastuak



barne hartu direlako. Zorpetze eragiketa bakarrari finantza zama kenduta, gastu arrunten % 7ko aurrezki garbia eskuratzen da. 2015eko abenduaren 31ko Diruzaintza geldikina HKEEK egindako doiketak hartuta, 5,6 milioi eurorena da.

Aurrekontuaren egonkortasuna: 5/2013 Foru Arauan ezarritakoari jarraiki, Udalaren Kontu Hartzaitzak 2015eko likidazio-txostena egin zuen aurrekontuaren egonkortasun printzipioa eta gastuaren araua betetzen zela egiaztatuaz:

- Aurrekontuaren egonkortasunari buruzko helburua bete da eragiketa ez finantzarioetan superabita eskuratu baita.
- Gastuaren araua bete da zenbagarriak diren gastuak % 12 murriztean.
- Zor publikoaren helburua bete da, diru-sarrera arrunten % 60ko muga baino txikiagoa izan delako.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

V.1 UDALA

2015-EKO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA						Euroak milakotan		
SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			SARRERAK	KOBRA.	GABEA	%
		HASIER	ALDAK.	B.BETIK.				
1.- Zerga zuzenak	A.3	6.494	-	6.494	6.502	6.091	411	100
2.- Zeharkako zergak	A.3	200	-	200	211	114	97	105
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	4.208	22	4.230	4.856	4.397	459	114
4.- Transferentzia eta diru-lag. arrunt.....	A.4	16.928	433	17.361	15.811	15.701	110	91
5.- Ondare sarrerak	A.5	60	-	60	317	75	242	528
6.- Inbertsio errealen besterentzea	A.5	-	-	-	492	44	448	-
7.- Kapital transf. eta diru-lag.	A.4	-	111	111	124	13	111	111
8.- Finantza aktiboak	-	5	7.717	7.722	81	81	-	(*)1.620
SARRERAK GUZTIRA		27.895	8.283	36.178	28.394	26.516	1.878	(*) 99

(*) Exekuzioaren % kalkulatzeko Diruzaintza Geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

2015-EKO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA						Euroak milakotan		
GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			GASTUAK	ORDAINK.	GABE	%
		HASIER	ALDAK.	B.BETIK.				
1.- Langileria-gastuak.....	A.6	9.463	181	9.644	8.986	8.815	171	93
2.- Ondasun arrunten erosk. eta zerb.....	A.7	9.264	845	10.109	8.722	8.241	481	86
3.- Finantza gastuak.....	-	18	(4)	14	9	-	9	64
4.- Transferentzia eta diru-lag. arrunt.....	A.8	8.384	495	8.879	7.947	7.851	96	89
6.- Inber. errealak	A.7	134	6.766	6.900	1.094	1.079	15	16
7.- Kapital transf. eta diru-lag.	-	28	-	28	14	5	9	50
8.- Finantza aktiboak	-	70	-	70	34	34	-	48
9.-Finantza pasiboak	A.9	534	-	534	534	534	-	100
GASTUAK GUZTIRA		27.895	8.283	36.178	27.340	26.559	781	75
SARRERAK - GASTUAK					1.054			

AURREKONTU ITXIEN ALDAKETA 2005					Mila euro	
	ERANSK.	HASIER.		BALIOG.	KOBRA./ ORDAIN.	AZKEN ZORRA
		ZORRA	ZORRA			
Zordunak	A.10	8.047	(866)	590	6.591	
Hartzekodunak	-	919		855	64	
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA			(866)			



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Eskubide kitatuak.....	28.394
Aitortutako obligazioak.....	(27.340)
INDARREKO AURREKONTUKO AURREKONTUZKO ERAGIKETEN EMAITZA	1.054
AURREKO EKITALDIETAN KITATUTAKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	(850)
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA	204
Finantziario desbideratzeak.....	-
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak.....	7.717
DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA	7.921

DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza geldikina 15.1.1.ean.....	9.468
Ekitaldiaren aurrekontu emaitza.....	204
Huts egindakoen hornidurarako dotaz. aldatetak.....	760
DIRUZAINZA GELDIKIN LIKIDOA 15.12.31-N	10.432
Diruzaintza.....	8.352
Aurrekontuko zordunak..... (A.10)	8.469
Aurrekontuz kanpoko zordunak..... (A.9)	1.804
Aurrekontuko hartzekodunak.....	(845)
Sarreraren itzuleragatiko aurrekontuko hartzekodunak.....	(1)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak..... (A.9)	(3.017)
Kaudimen-gabez. zuzkidura..... (A.10)	(4.330)
DIRUZAINZA GELDIKIN LIKIDOA 15.12.31-N	10.432
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza Geldikina..... (A.6)	114
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GELDIKINA	10.318
15.12.31-N ZORPETZEA (A.9)	2.101



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2015 ETA 2014-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANSK.	2015	2014	PASIBOA	ERANSK.	2015	2014
IBILGETUA		72.232	75.848	FUNTS PROPIOAK		75.337	77.454
Erab. orok. emand. ondasunak		16.619	16.169	Ondarea		53.786	53.786
Ibilgetu ezmateriala.....		1.140	1.010	Lagapenean dagoen ondarea.....		405	405
Ibilgetu materiala.....		53.498	57.641	Lagatako ondarea.....		(916)	(916)
Ibilgetu finantzarioa.....		975	1.028	Erabilera orokor. emand. Ondarea.....		(44.447)	(44.447)
				Aurreko ekitaldietako emaitzak.....		68.620	70.134
				Galerak eta Irabaziak	A.11	(2.111)	(1.508)
ZORDUNAK		5.937	4.302	HARTZEKODUNAK EPE LUZERA		7.271	7.805
Aurrekontukoak.....	A.10	8.469	8.047	Finantzetxeen maileguak e/luz.	A.9	7.267	7.801
Askotariko zordunak.....		1.355	300	Bermeak.....		4	4
Entitate publiko zordunak.....		443	258				
Kaudimengab. zuzkid.	A.10	(4.330)	(4.303)				
FINANTZA-KONTUAK		8.342	7.355	HARTZEKOD. EPE LABURRERA		3.903	2.246
Bermeak		(10)	(17)	Aurrekontukoak.....		847	919
Diruzaintza		8352	7.372	BEZarengatiko hartzekodunak.....		48	39
				Bestel. hartzek. ez aurrekontukoak		1.683	524
				Erakunde Publiko hartzekodunak.....		1.156	716
				Bermeak eta gordailuak		169	48
AKTIBOA GUZTIRA		86.511	87.505	PASIBOA GUZTIRA		86.511	87.505

2015 ETA 2014-KO EKITALDIETAKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

GASTUAK	2015	2014	SARRERAK	2015	2014
Langileria-gastuak.....	9.050	8.785	Negozio zifr. zenbateko garbia.....	3.454	3.293
Ibilgetua amortizatzeke zuzk.....	3.399	3.377	Zerga zuzenak	6.713	7.227
Kaudimengab. zuzkid. bariak.	27	(852)	Jasotako transf. eta diru-lag.....	15.811	16.073
Tributuak	8	4	Kudeaketa arrunteko bestel. sarr.....	1.760	1.424
Kanpoko zerbitzuak	8.650	8.383	Ekit. emaitzara eskualdatut. transf.	124	208
Emandako transf. eta dirul. arrun.....	7.961	8.384			
USTIAPENAREN MOZKINA.....	-	144	USTIAPENAREN GALERA.....	(1.233)	-
Finantza gastuak.....	9	15	Finantza sarrerak.....	6	14
			EMAITZA FINANTZARIO NEG.	(3)	(1)
Aurreko ekitaldietako gastu eta galerak	866	1.667	Aurreko ekitaldietako mozkinak.....	(9)	16
			APARTEKO EMAITZA NEGATIBOAK	(875)	(1.651)
			EKITALDIAREN EMAITZA (GALERA)	(2.111)	(1.508)



V.2 UDAL ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA SOZIJETATE PUBLIKOAK

2015-EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA					Euroak milakotan	
SARRERAK	ERANSKINA	KULTURGINTZA	KIROLAK	EUSKALTEGIA	MUSIKA	
3.- Tasak eta bestelako sarrerak		52	1.275	46	374	
4.- Transferentzia arruntak	A.12.1	1.236	2.237	494	1.039	
5.- Ondare sarrerak		-	1	-	-	
7.- Transf. eta kapitalezko diru-lag.		-	22	-	-	
8.- Finantza aktiboak		-	1	-	-	
GUZTIRA		1.288	3.536	540	1.413	

2015-EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA					Euroak milakotan	
GASTUAK	ERANSKINA	KULTURGINTZA	KIROLAK	EUSKALTEGIA	MUSIKA	
1.- Langileria-gastuak	A.12.2	616	1.694	461	1.269	
2.- Ondasun arruntan erosk. eta zerb.	A.12.3	592	1.684	52	140	
3.- Finantza gastuak		-	2	-	-	
4.- Transferentzia arruntak		3	6	1	55	
6.- Inber. errealak		-	30	3	13	
8.- Finantza aktiboak		-	6	-	-	
GUZTIRA		1.211	3.422	517	1.477	

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA					Euroak milakotan	
		KULTURGINTZA	KIROLAK	EUSKALTEGIA	MUSIKA	
ZORDUNAK						
Hasierako zorra		83	2	66	255	
Baliogabetzeak		(2)	-	-	-	
Kobrantsak		(80)	(1)	(65)	(254)	
Amaierako zorra		1	1	1	1	
HARTZEKODUNAK						
Hasierako zorra		29	38	9	27	
Baliogabetzeak		-	-	-	-	
Ordainketak		(24)	(38)	(9)	(27)	
Amaierako zorra		5	-	-	-	

AURREKONTUAREN EMAITZA					Euroak milakotan	
		KULTURGINTZA	KIROLAK	EUSKALTEGIA	MUSIKA	
Diru-sarrerak		1.288	3.536	540	1.413	
Gastuak		1.211	3.422	517	1.477	
INDAREKO AURREK. AURREKONTU EMAITZA		77	114	23	(64)	
AURREKO EKITALDIEN AURREKONTU EMAITZA		(2)	-	-	-	
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA		75	114	23	(64)	
Finantziario desbideratzeak		-	-	-	-	
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak		86	374	25	73	
DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA		161	488	48	9	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

DIRUZAINZTA GELDIKINA	Euroak milakotan			
	KULTURGINTZA	KIROLAK	EUSKALTEGIA	MUSIKA
Diruzaintza	492	1.273	109	37
Aurrekontuko zordunak	48	26	69	216
Aurrekontuz kanpoko zordunak	-	-	-	1
Aurrekontuko hartzekodunak	(18)	(39)	(9)	(23)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	(44)	(284)	(64)	(139)
Kaudimen-gabez. zuzkidura.....	-	(1)	-	(1)
DIRUZAINZTA GELDIKIN LIKIDOA 15.12.31-N	478	975	105	91
Finantzaketa atxikia duten gastuak	-	-	-	-
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZTA GELDIKINA	478	975	105	91

EGOERAREN BALANTZEA 2015eko abenduaren 31n	Euroak milakotan					
	Kulturgintza	Kirolak	Euskaltegia	Musika	Eraikitzen	LESA(*)
Ibilgetua.....	242	838	42	252	3	34
Erabiler orok. emand. azpiegit. eta ondasunak ..	12	-	-	-	-	-
Ibilgetu ezmateriala.....	2	7	1	33	-	-
Ibilgetu materiala.....	228	826	41	219	3	33
Ibilgetu finantzarioa.....	-	5	-	-	-	1
Aktibo erabilkorra.....	540	1.298	178	253	86	246
Aurrekontuko zordunak.....	48	26	69	216	-	54
Bestel. zordun ez aurrekontukoak	-	-	-	1	-	-
Kaudimengab. zuzkid.	-	(1)	-	(1)	-	-
Diruzaintza	492	1.273	109	37	86	192
AKTIBOA	782	2.136	220	505	89	280
Ondare garbia	720	1.813	147	343	61	181
Funts propioak	720	1.813	147	343	61	170
Ondare/Kapital soziala	119	123	24	86	61	360
Aurreko ekitaldietako emaitzak.....	542	1.627	102	322	-	(309)
Galerak eta Irabaziak	59	63	21	(65)	-	119
Hainbat urt. banatzeko sarr.	-	-	-	-	-	11
Epe luzeko hornidurak	-	-	-	-	-	7
Hartzekodunak epe luzera.....	-	1	-	-	-	-
Hartzekodunak epe laburrera.....	62	322	73	162	28	92
Aurrekontuko hartzekodunak	18	39	9	23	20	65
Bestel. hartzek. ez aurrekontukoak	19	214	40	80	-	-
Erakunde Publiko hartzekodunak	25	69	24	59	8	27
PASIBOA	782	2.136	220	505	89	280

(*) Likidazioan dagoen sozietatea.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

	Euroak milakotan					
	Kulturgintza	Kirolak	Euskaltegia	Musika	Eraikitzen	LESA (*)
Hornidurak	-	-	-	-	9	-
Langileria-gastuak	619	1.694	461	1.270	123	252
Kanpoko zerbitzuak	588	1.684	52	140	9	172
Tributuak	-	-	-	-	-	-
Emandako transferentzia eta diru-laguntzak	3	6	1	54	-	-
Amortizaziorako zuzkidura.....	16	86	5	14	2	-
Kaudimengab. zuzkid. bariaz.	-	1	-	-	-	-
Gastu finantzario eta antzekoak.....	-	1	-	-	-	-
Beste ekitaldi batz. gastu eta galerak	2	-	-	-	-	-
GASTUAK	1.228	3.472	519	1.478	143	424
Negozio zifraren zenbat. garbia	35	1.272	44	373	-	303
Jasotako transferentzia eta diru-laguntzak	1.235	2.238	494	1.039	143	235
Hainbat urt. banatzeko sarr.....	-	22	-	-	-	3
Kudeak. beste sarrera batzuk.....	17	3	2	1	-	2
Finantza sarrerak.....	-	-	-	-	-	-
Beste ekitaldi batzuetako sarr. eta mozkinak	-	-	-	-	-	-
SARRERAK	1.287	3.535	540	1.413	143	543
Emaitza: Mozkina/Galera (-)	59	63	21	(65)	-	119

(*) Likidazioan dagoen sozietatea.

	Euroak milakotan	
	Eraikitzen	LESA (*)
Kapital soziala (2015ean mugimendurik gabe)	61	360
Aurreko ekitaldietako emaitzak 2015 hasieran.....	-	288
Ondarearen bestelako bariazioak	-	21
Aurreko ekitaldietako emaitzak 2015 amaieran	-	309
Ekitaldiaren emaitza 2015 hasieran.....	-	21
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	119
Ondarearen bestelako bariazioak: Landako eraikinaren desatxikitzea	-	(21)
Ekitaldiaren emaitza 2015 amaieran	-	119
2015 hasieran jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak	-	7.380
Ondarearen bestelako bariazioak: Landako eraikinaren desatxikitzea	-	(7.369)
2015 amaieran jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak	-	11

(*) Likidazioan dagoen sozietatea.

DURANGOKO UDALAREN ALEGAZIOAK 2015EKO EKITALDIARI EGINIKO FISKALIZAZIO-TXOSTENARI

ALEGAZIOAK IRITZIA EPIGRAFEARI

1. Alegazioa

II.1.1 epigrafea. LANGILEAK

“I.- Udalak eta Musika eta Durango Kirolak erakunde autonomoek hiru kontratazio mugagabe egin dituzte 2015eko EAOLaren 21. artikulua urratuz, zeinak langileria berria kontratatzea eragozten duen. Gainera, hautaketa prozesuetako iragarkien goiburuek lan-poltsa bat osatzeko zirela zioen eta deialdian adierazi zen txanda-kontratu bat egiteko baliatuko zirela, mugagabea izango zela zehaztu gabe.”

Musika-hizkuntzako irakasle bat (Bartolome Ertzilla musika-eskola), kirol-instalazioetako teknikari bat (Durango Kirolak) eta obren brigadako langileburu bat (Udala) errelebo-kontratu bidez kontratatzeke lan-poltsa dagokienez, oinarrietan ez zen zehaztu kontratazioa kontratu mugagabe bidez egingo zenik, arrazoi hauek direla-eta:

1. Hautaketa-prozesuetatik ateratako lan-poltsak ez ziren errelebo-kontratuak egiteko bakarrik erabiliko, baizik etorkizuneko beharrak asetzeko ere bai (aldi baterako laneko desgaitasunak, eszedentziak, amatasun-baimenak eta abar direnerako ordezkapenak egiteko).

Aurreikuspen hori, gainera, hiru hautaketa-prozesuak arautzeko oinarrietan dago jasota. Hiru prozesuak arautzeko oinarrietan honela zegoen araututa, modu analogoan:

“2016an, orain langileburu-plazan ari den pertsonak erretiro partziala hartuko du. Hautaketa-prozesu honetatik ateratzen den lan-poltsa dagokion errelebo-kontratu egiteko eta etorkizuneko beharrak asetzeko erabiliko da.”

2. Oinarrietan kontratazio mugagabe bati eginiko erreferentzia bat sartzeak nahasmena ekar zezakeen. Ez da ahaztu behar administrazioan, lanpostu bat behin betiko eskuratzeko, besteak beste, honako baldintza hauek bete behar direla:

1. Lanpostua hutsik egotea eta lan-eskaintza publikoa gainditzea: kasu hauetan ez zegoen lanposturik hutsik
2. Hautaketa-prozesu bat gainditzea berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak egiaztatuta eta gutxieneko baldintzak batzuk beteta (adibidez: A-2 taldeko kasuetan, gaitegiak 60 gai izan behar ditu gutxienez eta C taldean, gutxienez, 40). Hemen hizpide ditugun lan-poltsetan, musika-hizkuntzako irakaslearen kasuan, ez zegoen gaitegirik, kirol-instalazioetako teknikariarenean 30 gai zeuden eta langileburuarenean 20 gai).

Lan-poltsetan kontratazio mugagabeari erreferentzia egiteak baliteke hautagaiak nahasarazi eta mugagabeko kontratazio finko bat dela pentsarazi izana. Hala ere, hautatuek, lanpostua behin betiko eskuratu nahi badute, dagokion hautaketa-prozesuan haien burua aurkeztu beharko dute lan-eskaintza publikoa egiten denean.

2. Alegazioa

II.1.2 epigrafea. KONTRATAZIOA

“2.- Durango Kirolak erakunde autonomoaren lehendakariak 2015ean kirol ikastaroak emateko kontratua esleitu zuen, aleko prezioetan 495.868 euroren balioetsitako zenbatekoan esleitu zena. Kopuru honek erakundearen baliabide arrunten % 10 gainditzen zuenez gero, Zuzendaritza Batzordeak esleitu behar zukeen.”

Kalkuluetan eginiko akats batengatik gertatu zen. Kontratu-urte baten % 10 kalkulatu zen eta ez kontratuaren gutxieneko iraupena, bi urte, oinarri hartuta. Epe horri dagokio, hain zuzen, estimatutako zenbatekoa: 495.868 euro. Hala ere, aipatu behar da DKen estatutuen 9.6 artikulua araberak, erakunde autonomoko presidenteari kontratazio-organo izatea dagokiola tokiko araubideko kontratuei lotuta indarrean den legeriaren arabera. 8.8 artikulua, berriz, ezartzen du Zuzendaritza Batzordeari dagokiola administrazio publikoen kontratuen legerian eta aplikagarri den gainerako tokiko legerian ezarritakoaren arabera egiten den kontratazioa. Ez dago aurreikusita Batzorde hori kontratazio-organo gisa aritzea.

3. Alegazioa

II.1.3 epigrafea. KONTRATAZIOA

“Ondotik zehaztutako hornidura eta zerbitzuak zuzenean esleitu dira, zegokion kontratazio prozedura izapidetu beharrean, publikotasun eta lehia printzipioei meneratua. Hona hemen 2015eko kostua xehatuta:

	Euroak milakotan		
	UDALA	KIROLAK	KULTURGINTZA
Gas naturala		182	
Telefonia-zerbitzuak	94		
GUZTIRA	668	463	74

Ez dago telefono-zerbitzu, energia elektriko, gas natural eta aseguruaren kontratuen lizitazio publikoko prozeduraren inguruko aurrekaririk.

Telefono-zerbitzuei dagokienez, Udalak kontratu bat du Euskaltekin eta telefonia mugikorrekoa, berriz, Telefonicarekin du.

Energia elektrikoa Iberdrolak hornitzen du. Ez dugu horniketako kontratu bakarra, baizik hornigai bakoitzerako kontratu bat. Guztira 134 sinatu dira Udalari telefonia, gas, energia elektriko eta aseguru zerbitzuak jabetza publikoko zenbait eraikin, instalazio edo bidetara hedatzeko beharra sortu ahala, eta zuzenean esleitu dira aipatutako zerbitzu edo hornitze horietarako kontratu asko. Kontratu kopuru handi hori sistematizatu egin du udaleko bulego teknikoak, ondoren, dagokion lizitazioa izapidetzeko. Argumentu bera aplikatzen zaio EDPrekin kontratatutako gas-horniketari. 24 kontratu izan dira guztira.

2016ko ekainean, Idazkaritza Orokorrak igorri eta Hirigintzako Informazio Batzordeari aurkeztutako txosten batek hau zioen.



“Aurreko paragrafoetan azaldutakoa kontuan hartuta, ahalik eta lasterren zuzendu behar da kontratazioetan dugun egoera eta kontratuen lizitazio-prozesua ireki behar da 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 1. artikuluan jasotako printzipioak betetzen direla bermatzeko, eta Udalak, horretarako, egungo egoera zuzentzeko beharrezko dituen giza baliabide eta baliabide materialak izango ditu.”

Udala energia elektrikoa kontratatzeko plegua aztertzen hasi zen elektrizitatearen horniketaren kontratazioa ahalik eta ondoen kudeatzeko, eta horretarako, sektore elektrikoko kontratuen legerian jasota dauden arrazionalizazio-teknikak erabili ziren.

Zenbait lan egin dira horri lotuta. Hala, Urkiola Landa Garapen Agentziak koordinatutako bileretan izan dira Udaleko ordezkariak. Eskualdeko udaletako ordezkariak energiaren erosketa kolektiboetan espezializatutako langileekin bildu ziren. Espezialista haiek, bestek beste, Arabako Enpresaburuen Elkarteari energia elektrikoaren erosketa kolektiboa egiteko aholkuak eskaintzen ibiliak ziren eta beharpen handiak lortu zituzten. Bildu ziren Gipuzkoako Foru Aldundiko kontratazio-zentraleko arduradunekin ere Gipuzkoako Udaletan energia elektrikoaren erosketa kolektiboak nola lizitatzen ziren jakiteko. Durangaldeko udalek esparru-hitzarmen baten bidez energia elektrikoa eskualdeko udal guztietarako eskuratzea elkarrekin lizitatzeko aukera aztertzen aritu gara.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundia kontratazio-zentral bat sortzeko prozesuan murgilduta dago eta Durangoko Udalak ere bat egin du prozesu horrekin. Merkaturatzeko enprekin esparru-hitzarmenak egin eta hala, zentral horri atxikitako udalerriek esleitutako horniketakontratuak bete behar dituzten baldintzak ezartzea da helburua. Arrazionalizazio-teknika hau erabiltzeak enpresa merkaturatzaileen lehia sustatzen du eta murriztu egiten ditu transakzio-kostuak, sinplifikatu egiten baita kontratuen esleipena. Elkarrekin lizitatze horren xede diren kontratuak sortzeko eta zehazteko prozesua 2017ko ekitaldian amaitzea espero dugu.

Azaldutako hori dela-eta, Udalak konpromisoa hartu du egoera hau ahalik eta azkarren zuzentzeko eskura dituen baliabideak erabiltzeko eta, horretarako, aipatutako zerbitzu edo hornitzeei dagozkien kontratu partzial guztiak bateratzen dituzten kontratuak lizitatuko ditu. Hala, kontratu horien xedea dena zatitzea ekidin nahi da.

4. Alegazioa

II.2 epigrafea. URTEKO KONTUAK

“1. Hona hemen 2015eko abenduaren 31n gastu orokorretarako Diruzaintza Geldikinean, data horretan itxitako Egoera Balantzean eta Funtz Propioetan eragina duten doiketak:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Eransk. Kontzeptua	Diruzaintza Geldikina	Euroak milakotan		
		Ondarekoa		Funts Propioak
		Aktiboa	Pasiboa	
15.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko eskubideak				
A.3 Ura hornitzeko tasa, 2015eko 3. eta 4. hiruhilekoa	-	650	-	650
15.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko obligazioak				
A.8 Suteen aurkako foru zerbitzuari ekarpena, 2015	(106)	-	106	(106)
A.8 2015eko laguntzak, etxebiz. alokatu eta haurtz. eta gaztaroko jarduerak	(81)	-	81	(81)
Beste batzuk				
A.4 Diru-lag. finantzak. desbideratzea 2015eko enplegu sustap. eta 2 obra ..	(215)	-	215	(215)
A.5 Hirugarrenen konturako urbanizazio kuota aurrekontuan	(102)	(69)	33	(102)
A.9 Faustegoiena orubearen salmenta, geroratutako zatia epe luzera kobratz.	(805)	-	-	-
A.9 2015 aurreko Udalkutxako likidazioeng. ordaintzeko saldoa erregulariz. .	260	-	(260)	260
A.9 Erabili gabeko maileguen kontzep. aitort. sarreragat.saldoak	(2.338)	(2.338)	(5.166)	2.828
A.10 Ekit.itxietako sarreren finantzaketaren desbideratzea.....	(1.280)	(540)	740	(1.280)
A.12 LESAn finantza inbertsioen balorazioaren zuzkidura	-	(178)	-	(178)
GUZTIRA	(4.667)	(2.475)	(4.251)	1.776"

A.8- 2015eko ekarpena suteen aurkako foru-zerbitzuari:

Udal honek, historikoki, gastu hau BFAk hurrengo ekitaldian konpentsatzen zuenean kontabilizatu izan du eta kontableki, urtean mugimendu bat izan da.

Udalak erreferentziazko partida handitu ahal duen ekitaldian bi urteko kuota hartuko ditugu aintzat eta, hala, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak aipatutako egoera erregularizatu ahal izango dugu.

A.8- 2015eko laguntzak etxebizitzaren alokairurako eta haur eta gazteentzako jardueretarako:

Udalak, laguntza hauen bidez, aipatutako diru-laguntzen zenbatekoaren banan-banako behin-behineko esleitzea egin zuen hasieran (2015eko ekitaldiaren amaieran), baina ez zituen banan-banako behin betiko kredituak 2016ko ekitaldira arte aitortu. 2016ko ekitaldian, dokumentazio guztia jaso eta erreklamazioak baloratu ondoren, txostena egin eta banan-banako behin betiko banaketa egin zen. Herri Kontuen Euskal Epaitegiak adierazitako moduan egingo ditugu gauzak.

A.4- Finantzaketaren desbideratzea 2015 diru-lag. enplegua sustatzea eta 2 obra:

Historikoki, Udal honek gastu orokorretarako soberakinetik, kendu egin ditu hurrengo ekitaldirako soberakin-txertatzeak, aurreko ekitaldietan erregistratutako diru-sarrera finalisten aurka eginikoak, eta hala, gastu orokorretarako soberakin doitua eskuratu izan da (magnitute hori kontuan hartzen zen gastu orokorretarako soberakinari eragiten zioten aldaketak egitean). Hala ere, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak txostenean jasota duen moduan eta foru-arauak berak finantzaketaren desbideratzei ezartzen dien definizioaren arabera, hemen ditugu behar zen. 2016ko ekitaldiaren eta hurrengoekiko likidazioetarako, kontuan hartu da hori.



A.5- Hirigintzako kuotak hirugarrenen kontura aurrekontuan:

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txostenak adierazten duen moduan, entitate honek Eguzkitzagaienako itun-batzarraren hirigintzako kuoten bidez erregistratu ditu aurrekontuko diru-sarrerak, nahiz eta Udalak bitartekari-lanak bakarrik egin.

2016ko ekitaldian erregularizatu da egoera hori.

Udalak erreferentziatzeko partida handitu ahal duen ekitaldian bi urteko kuota hartuko ditugu aintzat eta, hala, Euskal Herriko Kontuen Auzitegiak aipatutako egoera erregularizatu ahal izango dugu.

A.9- Faustegoiena orubea saltzea, geroratutako zatia epe luzean kobratzeko:

Doitze hau aintzat hartu dugu 2016ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioari dagokion soberakinari begira.

A.9- 2015 baino lehenagoko Udalkutxaren ordaindu beharreko likidazioen saldoa erregularizatzea:

2016ko ekitaldian zuzendu da.

A.9- Saldoak aitortutako diru-sarrerengatik, erabili gabeko maileguak:

Udalak badu gertaera honen berri eta urtero ezeztatu du kobratzeko dagoen hau dagokion banku-entitateak emandako amortizazio teorikoaren arabera. Egoera behin betiko erregularizatuko da datozen ekitaldietako likidazioek ematen diguten aukeraren arabera.

A.9- Finantzaketaren desbideratzea, diru-sarrerak, itxitako ekitaldiak:

Aurreko ekitaldietan jasotako diru-laguntzei dagokienez, diru-laguntzaren xede ziren jarduerak erabat burutu ez diren kasuetan edo aurrekontuan jasotakoaren artean eta benetako gauzatzearen artean aldea egon delako (540.269 euro), aipatu behar dugu 2016ko ekitaldian ezeztatu egin ditugula saldo horiek, Sailek emandako datuetan oinarrituta.

7. gauzatze-unitatetik bildutako hirigintza-kuotei (739.880 euro) dagokienez, honen bidez jakinarazten dugu finantzaketako desbideratzeak kalkulatzeko kontuan izango dela 2016ko ekitaldiari dagokion aurrekontuaren likidazioan.

“2. Udalak 2000n berrikusi zituen bere ibilgetuaren balorazioak eta urte horretatik aurrera idazpuruetakoko saldo globalak aldatu zituen aurrekontuen kontabilitatean jasotako informazioa baliatuta. Hala eta guztiz ere, ez du ibilgetua eragiten duten egintza ekonomiko guztien kontularitzako erregistroa bermatuko duen jarraipenik egiten eta zehazki, ez du ibilgetuaren elementu bakoitzeko xehapenik, ez zuzkiduren kalkulurik egiten. Horregatik guztiagatik, ez dezakegu zehaztu ea ibilgetuko kopuruek 15/12/ 31n Udalaren ondasun eta eskubideen egiazko egoera islatzen duten.”

Udalak ondasunen eta eskubideen inbentario eguneratua du, baina ez du zerikusirik kontabilitateko ondare-sistemarekin. Ibilgetuaren taldeko kontuak erregularizatu behar dira oraindik, ondasun eta eskubideen inbentarioaren bitartez ibilgetua etengabe kontrolatzeko moduko sistema informatikoa noiz ezarriko zain. Horrela, bada, erosteko, besterentzeko eta



baja emateko eragiketen erregistro sistematikoa egin ahal izango da, eta amortizazioak zein balioespen-zuzenketak ere egin ahal izango dira inbentarioaren eta kontabilitatearen azpisistemetan.

Egungo ibilgetuaren hobekuntza edo kopurua ugaritzea eragiten duten ekintza guztiek kontularitzako isla dute. Mugimendu horiek urtero udal-inbentarioan inbertsio gisa sartzen dira, baina ez dago konexiorik inbentarioa jasotzen duen programa zaharkituaren eta udal-kontularitzaren artean.

ALEGAZIOAK EPIGRAFEARI, OHARRAK BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETARKAO PROZEDURARI BURUZ

5. Alegazioa

III.1 epigrafea. AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

“ Udalak ez zuen 2015erako aurrekontua onartu eta ez zitzaion Udalbatzari zegokion aurrekontu proiektua aurkeztu onartu, zuzendu edo atzera botatzeko. 2015eko Kontu Orokorra onartzeke dago txosten hau idatzi dugun datan.

- Udalak 2015eko aurrekontura 4,1 milioi euroren gastu kredituak txertatu zituen, jada 2014ko aurrekontura txertatu zirenak, eta hitzartu gabeko gastu arruntetarako kredituak, 715.427 eurorenak; ordea, aurrekontu-araudiak kreditu mota hau txertatzeko bide ematen du soilik helburudun diru-sarrerekin finantzatzen direnean eta ezaugarri hori ez da egiaztatatu.”

Durango Udalak, historikoki, gastu orokorretarako diruzaintzako soberakinaren kargura sartu izan ditu ondorengo ekitaldietan egingo diren ekintzekin lotutako aurrekontu-kredituak eta horien artean daude 2010eko ekitaldian eskatutako maileguaren zatiari dagozkionak. Ezeztatzeke dago. Ahal den neurrian, erregulatuko dugu kontu hau.

“Egoera hau bera gertatzen da Durango Kirolak eta Musikako erakunde autonomoetan, hurrenez hurren, 193.976 eta 6.748 euroren txertaketa jarraituak egin dituztenak. Hitzartu gabeko gastu arruntetarako kredituei dagokienez, 164.479 euro egin zituzten lau erakunde autonomoetan.

- 2015eko likidazioak ez zuen zegokion Konpromisoen egoera besarkatzen, etorkizuneko aurrekontuen kontura hartutakoei buruzko informazioa emango zuena; konpromiso horiek 646.813 euro egin zituzten eta baziren hitzartutako diru-sarrerak ere, 376.380 euroren zenbatekoan.”

Udalak aurrekontuaren luzapenerako egin zuen dokumentu hau, baina ez da 2015eko ekitaldiko aurrekontuaren likidazio-espeditentean sartu hutsegite administratibo bat tarteko.

“- TAO zerbitzua kudeatzeko kontratuak aurreikusten du esleipendunak zerbitzuko sarreren ehuneko bat ingresatu beharko duela -38.364 euro 2015ean-, eta diru-bilketaren gainerakoa



emandako zerbitzua ordaintzeko baliatuz; Udalak ez du gauzatutako konpentsazioa erregistratzen. Enpresa esleipendunak kudeatutako parkimetroen diru-bilketa 674.509 eurorena izan zen eta egindako konpentsazioak berriz, 636.144 eurorenak.”

Eragiketa hauek, historikoki, zenbateko garbiaren arabera erregistratu izan dira, baina egia da horrela ez dela betetzen osotasun-printzipioa eta, beraz, 2017ko aurrekontuan (ezin baita 2016koan egin) zuzendu egingo da hori.

“- Udalak aurrekontuz kanpo erregistratu zituen hirigintzako planeamendu kontzeptuan egindako ordainketak eta lehenagoko urteetan gauzatutako sektore arteko konpentsazioak, 2015eko abenduaren 31n 302.108 euroren kobratzeko saldoa eragin dutenak. Egokiagoa da eragiketa mota hau aurrekontuan erregistratzea, baldin eta zorrak esanguratsuak badira eta kobratzeko epe luzeak aurreikusten badira. Urtebetetik gorako antzinatasuna duten aurrekontuz kanpoko beste saldo batzuk azaleratu dira eta komeniko litzateke horien kobragarritasuna aztertzea.”

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak gai horretan eginiko gomendioari lotuta adierazi behar da gauzak horrela egin direla, ulertzen dugulako ordainketa zer une zehazetan egingo den ez jakitea hobeto doakiola aurrekontuz kanpo egiteari eta kobratzeak egin ondoren, egoera erregulatzea. Hala ere, aurrekontuko datuek aukera ematen diguten neurrian, Herri Kontuan Euskal Epaitegiak adierazitako moduan egingo ditugu gauzak.

“- Udalak 2015ean 2016an agindutako hiru mandaturen ordainketa erregistratu zuen, 1,4 milioi euroren zenbatekoan; ordea, egiaz ordaintzen den ekitaldian erregistratu behar litzateke.”

Durangoko Udala ekitaldi batean gauzatzen diren faktura eta kontratu guztiak ekitaldi horretan ordaintzen saiatzen da ordaintzeko batez besteko epea betetze aldera. Hori horrela, eta sailei fakturen eskaerak eta abian jartzeko lanak arintzeko eskatzen diegun arren, fakturetako batzuk bigarren ekitaldiaren hasieran iristen zaizkio administrazio honi.

Kontabilitateari dagokionez, ditugun baliabideekin ezinezkoa da ordaintzeko dauden fakturen “P” urtearen hasieran islatzea eta horrela, saihestu egingo genuke hori. Hala ere, kontabilitateko programak eguneratzeko zain gaude eta eguneratzean, gauzak Herri Kontuen Euskal Epaitegiak adierazitako moduan egiten saiatuko gara.

“- Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoak ur-horniduragatiko tasa biltzen du, 2015ean 1,3 milioi euroren diru-sarrerak eragin zituena. Udalak ez ditu tarifa aldaketak onartu, ez eta kobrantza-errolak ere; orobat, ez da gauzatu Udalari ematen dion diru-bilketa zerbitzuaren kontzeptuan Partzuergoari egin beharreko mandatua.”



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Partzuergoaren Estatutuen 8. artikuluan daude ezarrita Partzuergoaren eskumenak eta hona zer dioen 5. puntuak hitzez hitz: *“Lehen mailako eta bigarren mailako sareko hornitze-eta saneamendu-tarifen zenbatekoa ezartzea, udalerriek zerbitzu horiek lekuren batean eskaintzeari eutsi edo ez, eta edozein dela eta zerbitzuaren kudeaketa egiteko modua, zuzenekoa edo zeharkakoa. Aipatutako tarifak uniformeak izango dira Partzuergoaren eremu osoan”*.

Horregatik uste du Udal honek ez duela tarifak finkatzeko ordenantza fiskalik onartu behar.

“Udalaren lan baldintzak arautzen dituen erabakiak bertako langileen alde aurreko erretiroagatiko 10 eta 27 hilekoren ordainsarien ordainketa ezartzen du; horren ondorioz, langile bati 2015ek urtean 47.117 euroren ordainsariak ordaindu zaizkio. Kontu Orokorren Oroitidazkian ordainsari osagarri mota hau existitzen dela jakinarazi beharko litzateke.

Udal erakunde autonomoak eta sozietate publikoak

- *Aurrekontua egikaritzeko udal araudiaren 23. artikulua agintzen du erakunde autonomoen aurrekontuko aldaketek metatutako % 5 gainditzen denean Udalbatzak onartu beharko dituela; ez dute, baina, lau erakunde autonomoek aurreikuspen hau aintzat hartu.*

- *Erakunde autonomoek euren ibilgetuen balorazioak 2007an berraztertu zituzten. Ondoko inbertsioek idazpuruetaiko saldo globalak aldatu zituzten, txertaketen elementuen arabera xehapenik izan gabe. Amortizazioa ere osotasunean kalkulatu da. Komenigarria litzateke 2007ko inbentarioa gaurkotzea.*

Gainera, jarduera udal jabetzako eraikinetan gauzatzen dute, erakunde autonomoetara atxikiak daudenak, eta horien kostua eta amortizazioa ez dira beren kontuetan barne hartzen; egitate hori Oroitidazkian berariaz adierazi behar litzateke.

- *LESa 2015eko abenduaren 1ean automatikoki desegiteko kausa egin zuen; inguruabar hau Batzorde Nagusiak egiaztatu behar luke eta Merkataritza Erregistroari jakinarazi.”*

7/1985 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarriak (Tokiko sektore publikoaren neurriak berriz ezartzea) honako hau ezartzen du:

(...)

2. Lege hau indarrean jartzean jarduera ekonomikoak garatzen dituzten, Kontuen Europako Sistemaren ondorioetarako Legearen 3.1. artikulua toki-erakundeei edo erakunde autonomoei atxikita dauden eta finantza-desorekan dauden erakundeek bi hilabeteko epea izango dute, Legea indarrean sartzetik, toki-erakundeko organo kontu-hartzaileak txostena eman ondoren, desoreka hori zuzentzeko plana onesteko. Ondorio horietarako, eta zuzenketa-planaren zati gisa, tokiko erakundeak ondare-ekarpenak egin edo bere erakundearen kapital-gehikuntzak sinatu ahalko ditu, betiere, aurreko aurrekontu-ekitaldian tokiko erakunde horrek aurrekontu-egonkortasunari eta zor publikoari lotutako helburuak bete baditu eta hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeak



berankortasun-araudian ezarritako gehienezko epeari hogeita hamar egun gehituta osatzen den epea gainditzen ez badu.

Zuzenketa hori 2014ko abenduaren 31rako bete ezean, toki-erakundeak, sei hilabeteko epean, gehienez, urteko kontuak onesten direnetik aurrera edo erakundearen 2014ko ekitaldiaren aurrekontua likidatzen denetik aurrera zenbatzen hasita, desoreka-egoeran dauden erakunde guztiak deuseztatuko ditu. Hala egin ezean, erakunde horiek automatikoki deuseztatuko dira, 2015eko abenduaren 1ean.

Durangoko Udalari dagokionez, Landako Erakustazoka(k):

- a) jarduera ekonomikoak garatzen ditu;
- b) Kontuen Europako Sistemara atxikita dago eta
- c) finantza-desorekan zegoen 27/2013 Legea indarrean jarritako datan (2013ko abenduaren 31n) eta 2014ko abenduaren 31n.

Beraz, 7/1985 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarria aplikagarri zitzaien eta horren ondorioz, 2014 ekitaldiko urteko kontuak edo aurrekontuaren likidazioa onartu eta gehienezko epea –hurrengo sei hilabeteak– igaro ondoren, erakundea automatikoki desegin zen 2015eko abenduaren 1ean.

Sozietatea desegiteko arrazoiak kapital-sozietateen inguruan indarrean den Legean ezarritakoa, desegite automatikoa da eta horregatik eman zaio horren berri udaleko talde politiko guztietako kide diren kontseilariek osatutako Administrazio Kontseiluari. Bestalde, Ogasun, Pertsonal eta Udaltzaingoaren Batzordeari igorri zaio idazkaritzako txostena, honako hau proposatzeko:

“LEHENENGOA: Tokiko Araubidearen Testu Bateginaren 97. artikulua araututako espedientea abiaraztea onartzea, Udalak, gaitasun juridiko osoz, erabilera anitzeko Landako gunean eta hari erantsitako gainerako instalazioetako kudeaketa osoa eta ustiaketa egitea –hor sartuko lirake azoka eta merkatuen sustapena, horien kudeaketa, lan-arloak ez diren jardueren garapenerako babesak eta higiezin lagatzea eta alokatzea eta aparkaleku publikoa ere– komeni dela eta horretarako aukera dagoela egiaztatzea.

BIGARRENA: Aztertzeke Batzorde bat izendatzea eta eratzea. Honako hauek osatuko dute: Ogasuneko Informazio Batzordea osatzen duten udalkideek eta Udaleko Eskuhartzaitza eta Idazkaritzak, hitzarekin baina botorik gabe. Batzordeko Presidentetza aipatutako batzordeko presidenteari dagokio.

HIRUGARRENA: Aztertzeke Batzordeak aipatutako espedientearen memoria egitea Batzordearen presidenteari aurkeztea, hark aintzat har dezan.”

6. Alegazioa

III.2 epigrafea. LANGILERIA

“- Udalak indarrean ditu bitarteko langileen 3 kontratazio 2006 eta 2009az geroztik. Hauetako bitan obrako lan kontratuak ez dute iraupena zehazten eta bestean, bitarteko izendapena



trenbidea lur-azpiratzeko lanetan oinarritu zen, 2012an amaitu zirenak. Gainera, 2014an langile batekiko lan harremana mugagabe bihurtzen zuen epaia ebatzi zen, zeinari kontratuak bata bestearen atzetik egin zitzaizkion. Udalak kasu hauek aztertu eta LZ aldatu behar luke edo egoera hauek zuzentzeko egitekoen esleipena berrantolatu.”

Udala jabetzen da langile batzuen kontratazioetan desadostasunak daudela. Harrigarria da HKEEk lanpostuen zerrenda aldatzea proposatzea, kontuan hartuta kasu honetan, egiteko iraunkorrak izanik, lanpostu berriak sortu beharko liratekeela; baina gaur egun aukera hori indarrean dagoen aurrekontu-araudiak debekatzen du.

Gaur, egoera desberdinean dauden langileen lanbidea aitortzeko prozesua amaitu da, horiek langile mugagabe ez-finko direla adierazi baita; ondorioz, lanpostu baliokideak sortu beharko dira. Horrek guztiak segurtasun falta juridikoa eragin digu; izan ere, langile horien egoera arautu behar dugu eta, aldi berean, lanpostuen zerrendan postuak sortzeko legezko debekua dugu.

“- Indarreko LZ 2013an onartu zen urteko aurrekontuarekin batera, egindako aldaketak batere jaso gabe (lanpostu berri bat eta aldaketak beste 9tan) eta espedientean justifikatu gabe.

- Lanpostu zerrendak lanpostuak kategoría eta kidegoaren arabera zerrendatzen ditu, baina ez ditu ordainsari oinarrituko (soldata eta antzinasuna) eta osagarriei dagozkien kreditu zuzkidurak xehatzen eta ez ditu aparteko ordainsariak eta bestelako hartzeokoak kuantifikatzeko gauzatutako balioespen globalak adierazten.”

Ordainsariak oinarrituko eta osagarri gisa ageri dira, horien kontzeptuak bereizi gabe. Aurrekontu-plantilla osatuko da, HKEEk gomendatutako xehetasunarekin.

“- 2015erako Udalaren Lan Baldintzak Arautzen dituen Akordioak Osagarri Pertsonal Iragankorraren-Antzinasunaren zenbatekoa gehitu zuen, nahiz indarreko aurrekontu-araudiak ez duen 2014koarekiko aldaketarik egitea onartzen.”

Hileko antzinasuneko zenbatekoak eta aparteko pagaren antzinasuneko zenbatekoak direla eta, Aurrekontu Legeetan ezarritako zenbatekoak errespetatu ziren. Gorakada antzinasunaren osagarriaren kontzeptuan izan zen. Gorakada horren aldeko txostena eman zuen Negoziazio Mahaiak.

“- 2015ean zehar Udalak aldi baterako 23 langile kontratazio egin zituen eta turismoko informatzaileen 6 kontrataziotan 2007 eta 2008ko lan-poltsa zaharrak baliatu zirela ikusi da. 3. adinekoak artatzeko teknikari baten 2 kontratazioak 2003an gauzatutako hautaketa-prozesu bat baliatuta gauzatu ziren eta kudeaketa-teknikari bat 2008an kontratatatu zen,



zeinari kontratua urtero berritzen zaion prozesu berririk abiarazi gabe. Lan-poltsen kudeaketa arautu behar litzateke, bereziki gauzatutako prozesuaren ebidentzia utziz.”

Ez dago enplegu-poltsen gehieneko indarraldia arautzen duen araudirik.

Lege-huts hori kontuan hartuta, erakunde bakoitzak haren indarraldiko jarraibideak zehaztu behar ditu.

Ez dugu baliabiderik lan-poltsak berritzeko; hori dela eta, batzuetan antzinako poltsak erabili behar ditugu. Poltsen kudeaketa dela eta, beharizana dagoen bitartean, telefonoz jartzen gara harremanetan hautagaiekin eta, horretarako, zerrendaren hurrenkerari jarraitzen zaio, eta eskaintzari uko egiten diotenei eskatzen zaie mezu elektronikoko bat bidaltzeko Langile Sailari eta, bertan, ukapena adierazteko. Dokumentazio hori gorde egiten da eskaintza bakoitzeko.

“Udal erakunde autonomoak eta sozietate publikoak

- 4 erakunde autonomoen aurrekontu-plantillak guztira aurreikusitako ordainsariak xehatzen zituen; ez zituen, baina, ordainsari kontzeptuak banakatzen.

- Bi erakundetan Lanpostu Zerrendan bi zuzendari postu eta ikasketa-buru postu bat barne hartzen ziren, aurrekontuan jaso ez direnak 3 irakasle lanposturi metatzen zaizkielako.”

Bartolome Ertzilla erakunde autonomoan zuzendariaren postua jasotzen da aurrekontuan, bai eta irakaslearen postuaren % 50 ere hura ordezkatzeko. Modu berean jasotzen da aurrekontuan ikasketaburuaren kasua, baina liberazioaren % 35i dagokionez. Euskaltegian aurrekontuan bakarrik jasotzen dira zuzendariaren ordainsariak; eta ez da langilerik kontratatzen zuzendaria ordezkatzeko irakasle-lanetan.

“- Musikako erakunde autonomoak aldi baterako 26 musika irakasle kontratu gauzatu zituen zuzenean, aldi baterako langileen lan-poltsak baliatu gabe. Durango Kirolak erakunde autonomoak aldi baterako 25 begirale-sorosle eta harrera-lekuko langile kontratazioak egin zituen, lan kategoria horietarako eratutako lan-poltsak baliatu gabe. Azkenik, Astarloa Kulturgintza erakunde autonomoak 10 kontrataziotan baliatutako lan-poltsak 2006 eta 2007an sortutakoak dira eta komeni da horiek berritzea.”

Bartolome Ertzilla erakunde autonomoan, hezkuntza-eskaintzan 16 diziplina desberdin daude; ez da bideragarria dagozkion enplegu-poltsak eguneratuta izatea eta mantentzea. Gainera, sarritan gertatzen zaigu ez dagoela hautagairik prestakuntza egokiarekin eta derrigorrezko 3. HErekin.

Enplegu-poltsa ez dagoenean eta berehala bat-bateko bajagatik epe laburreko kontratazioa egiteko beharra dagoenean, jarduteko modua honako hau da:



Musika Eskolan azken 2 urteetan dagokion diziplinaren inguruan jasotako CVak berreskuratzen dira.

Hautagaiek 3. HE duten kontrolatzen da.

Musika Eskolak zuzendaritza-taldearen eta ordezkari-taldearen arteko bileran onetsitako baremazio-taula aplikatzen zaie CVe (Ikus adibidea 9. eranskinean).

CVak ordenatzen dira, eta telefonoz deitzen da, zerrendako hurrenkerari jarraikiz.

Halaber, ohikoa da Musikenerekin harremanetan jartzea, beharra hango ikasle ohien artean zabaltzeko.

Jakin behar da Musika Eskoletan eta Erdi mailako Graduko Kontserbatorioetan langileak ordezkatzeko dagoen arazoa orokorra dela musika-irakaskuntzako zentroetan, ez dela bakarrik Bartolome Ertzillako arazoa.

Euskal Herria EHME Musika Eskolen Elkarteak, arazo horri irtenbidea emateko, indarrean ditu aldi baterako poltsa batzuk, eta Musika Eskolak horietara atxiki daitezke. Horietara atxikitze aukera baztertu egin zen bere garaian, horien legezkontasuna zalantzan jarri zelako. Gainera, poltsa horien kudeaketak arazo gehiago izan ditzake onurak baino, alegia: ez dago poltsen kudeaketaz arduratzen den erakunderik; atxikitako guztiek zeukaten sarbidea zerrendetara eta deiak egin zitzaizketen, eskuragarri zeuden pertsonak ziren jakin gabe, kudeaketa ez baitzegoen zentralizatuta. Egoera horrek segurtasunik eza eragiten zuen.

Nahiz eta aurretik enplegu-eskaintza bidaltzen zen Lanbidera, gaur egun ez da hala egiten; izan ere, sarritan, bidaltzen ziren hautagaiek ez zeukaten zerikusirik eskaintzarekin (adibidea: tronpetako irakaslea behar zen eta saxofoiko irakaslearen CVA bidaltzen zizuten) edo besterik gabe musikan titulaturako pertsonarik ez zuten atxikita. Ez dakigu zer dela eta gertatzen diren horiek, sailkapen-arazoa den, iragazpen-arazoa... Baina Musika Eskolak erabaki zuen Lanbiderekin lanean ez jarraitzea, arrazoi horregatik.

Durango Kirolakaren monitore-sorosle kontratazio guztiak aldi baterako enplegu-poltsa egokian oinarrituta egin dira.

“- LESAk 2015eko abenduaren 31n indarrean zituen 2010 eta 2011n gauzatutako obrako hiru lan-kontratu. Kontratuen iraupenak adierazten du garatutako egitekoek iraunkortasun izaera dutela eta honenbestez, egoera hori zuzendu egin behar da.”

LESA likidazio-prozesuan dago. Jarduera Udalak beteko du, Toki Araubidearen legerian aurrez ikusitako moduren batean. Erakundea erregularizazio-prozesuan dago, eta, ondorioz, lanpostuak sortzen ari da. Horrek, ordea, segurtasun falta juridikoa dakar; izan ere, langile horien egoera arautu behar dugu eta, aldi berean, lanpostuen zerrendako postuak sortzeko legezko debekua dugu; beraz, paradoxa bat da.

7. Alegazioa

III.3 epigrafea. KONTRATAZIOA

“2013ko abenduan lizitazioak eta emaitzak Sektore Publikoko Kontratazioaren Plataforman argitara emateko obligazioa indarrean sartu zen, bai zuzenean bai udal plataformarekiko lotura bidez; udalak, baina, ez du betekizun hori bete.”

Gaur egunera arte ez da kontuan hartu. Izan ere, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, azaroaren 14koak, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bategina (aurrerantzean, SPKLTB) onartzen duenak, Sektore Publikoaren Kontratazio Plataformaren funtzionamendua arautzen duen 334. artikuluan, ez du ezartzen administrazio honek lizitazio-deialdia eta haren emaitzak Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman argitaratzeko betebeharra duenik. 2013ko abenduan indarrean jarri zen 20/2013 Legeak, abenduaren 9koak, Merkatu-batasuna bermatzeari buruzkoak ezarri zuen betebeharrak.

Gero, hainbat aldaketa egin dira SPKLTBn baina, hala eta guztiz ere, betebeharrak ez da jaso Sektore Publikoaren Kontratazio Plataformaren funtzionamendua arautzen duen SPKLTBren 334. artikuluan. Hemendik aurrera, betebeharrak kontuan hartuko da.

“Udalak ez ditu udal kudeatzaileen eta zerbitzu kontratuen esleipendun diren enpresen arteko harremana argitzeko eskatutako jarraibideak ebatzi. Honela, aztertutako 3 kontraturen pleguek (1, 2 eta 6 zk.) agintzen zuten aurreko kontratistaren langileria subrogatu behar zela; ordea, betekizun hau enpresa eta langileen arteko sektoreko hitzarmenetatik soilik erator daiteke.”

Ez dugu aurkitu txostenean aipatzen diren jarraibideei buruzko lege-betebeharrak¹.

Era berean, betebeharrak hori Euskadiko toki erakundeetako langileen lan-baldintzak arautzen dituen Udaltz 2008-2010 akordioaren 171. artikuluan (funtzionarioak) eta 175. artikuluan (langile lan-kontratudunak) dago jasota: *“Aurrerantzean, aurretik ematen ari zen zerbitzu jakin bat ematea helburu duten kontratu publikoak esleitzen direnean, esleipenaren unean zeuden langileak subrogatuko dituela bermatu behar du kontratua esleitu zaion enpresak, sektoreko hitzarmenek ezarritakoa gorabehera, plantillaren egonkortasuna lortzeko; hala izan dadin, izapidetutako espediente berrien baldintza-pleguetan, subrogazio-klausula ezarriko da eta ezinbestekoa izango da hori kontuan hartzea gardentasuna eta fede ona baldintzak betetzeko”.*

Halaber, betebeharrak hori 2014/2015 ekitaldian Durangoko Udaleko eta bere erakunde autonomoetako funtzionarioen eta langile lan-kontratudunen lan-baldintzak arautzeko akordioaren (2014ko abenduaren 16ko osoko bilkurako akordio bidez onartu zen akordio hori) 175. artikuluan dago jasota: *“Aurrerantzean, aurretik ematen ari zen zerbitzu jakin bat ematea helburu duten kontratu publikoak esleitzen direnean, esleipenaren unean zeuden langileak subrogatuko dituela bermatu behar du kontratua esleitu*

¹ 20/2012 EDLren xedapen gehigarri lehenengoa.



zaion enpresak, sektoreko hitzarmenek ezarritakoa gorabehera, plantillaren egonkortasuna lortzeko; hala izan dadin, izapidetutako espediente berrien baldintza-pleguetan, subrogazio-klausula ezarriko da eta ezinbestekoa izango da hori kontuan hartzea gardentasuna eta fede ona baldintzak betetzeko".

Aipagarria da langileen subrogazioak dakartzan kostuak kalkulatzeko behar diren datuak kontratuen baldintza-pleguetan adierazi zirela eta legeak ezarri bezala argitaratu zirela enpresek horiek kontuan har zitzaten eskaintzak egin aurretik, eta horrek ez ziela inola ere eragin kontratazio-prozeduretan jarraitzen diren gardentasun-printzipioari eta lizitatuzaileei tratu berdina ematearen printzipioari.

"Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden 6 kontratu nagusiak aztertu ondoren, honako alderdi hauek azaleratu zaizkigu (ikus A.13):

- Guztira 3 milioi euroan esleitutako bi kontratutan (1 eta 2 zenbakiak), eskaintza ekonomikoak balioztatzeko erabilitako formulek mugatu egiten zuten beheranzko prezioaren zenbatekoa. Gainera, bigarren kontratuan esleipen irizpideak orokorrak dira eta ez dira zehazten ez balioztatuko diren alderdiak, ez balorazio sistema bera ere (A1 akatsa)."

SPKLTBren 86. artikulua ezartzen du prezioa eskaintzak baloratzeko irizpide izan daitekeela. Ez du esaten ezin denik prezioa beheratzeko mugarik ezarri. Hainbat formula erabiliz hauxe lortu nahi zen: gehiegizko beherapenak zerbitzuaren kalitateari kalterik ez egitea.

Egia da bi kontratu horietan, eskaintza ekonomikoak baloratzeko erabilitako formulek jaitsieraren zenbatekoa mugatzen zutela. Udala horretaz ohartu zen, eta, ordutik aurrera lizitatutako kontratuetan, beste formula batzuk baliatzeari ekin zion.

Bigarren kontratuan aplikatutako esleipen-irizpideak "generikoak" izateari dagokionez, hauxe esan behar dugu: eskaintzak baloratzeko irizpide zehatzak ezarri zirela, honako hauek besteak beste:

1. Erabilitako konpostak Europako Etiketa Ekologikoak ezarritako lur-medegarrien edo substratuen konposizioari eta substantziei buruzko irizpideak betetzea baloratuko da. (gehienez ere, 2 puntu).

Irizpideak ikusteko, sartu hemen:

<http://eurlex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:L:2006:325:0028:0034:ES:PDF>

2. Zerbitzuan erabilitako ibilgailuetatik, mota honetako ehuneko zenbat dauden baloratuko da: iragazkiak baliatuz egokitutako EURO 4 eta EURO 5 ibilgailuak (gehienez ere, 2 puntu).
 - EURO 4 ibilgailuen ehunekoa (gehienez ere, 1 PUNTU; bestela, 0 eta 1 artean dagokion proportzioa).
 - EURO 5 ibilgailuen ehunekoa (gehienez ere, 1 PUNTU; bestela, 0 eta 1 artean dagokion proportzioa).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Zentzu horretan, baliteke pleguan ezarritako lizitatzailleek aurkez zitzaizketen baldintza-hobekuntzak behar bezain zehatzak ez izatea, baina Udalaren ustez, balorazio-irizpide guztiak generikoak eta ez-zehatzak direla esatea ez dator bat kontratu hori arautzen duten pleguetan jasotako errealitate zehatzarekin.

Orain arte adierazitakoa bazter utzi gabe, Udalak beharrezko neurriak hartu ditu lizitazioetan ezarritako balorazio-irizpideak HKEEK aipatutakoak bezain generikoak ez izateko.

“- Kontratuen esleipenari ez zitzaion publikotasunik eman edo legezko epeekiko atzerapenez eman zitzaion bost kontratutan (1, 2, 3, 5 eta 6 zk. espedienteak), guztira 5,9 milioi euroren zenbatekoan esleitu zirenak (B1 akatsa).”

Egia da berandu argitaratu zirela, besteak beste honako arrazoi hau dela eta: 2016ko martxora arte Udalak ez zituelako sinatutako kontratuak Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioaren Kontratuen Erregistro Publikoan erregistratzeko behar diren sarbide-gakoak. Horrenbestez, 2016ko martxotik aurrera, sinatutako kontratuak epe barruan argitaratzen ahalegindu da Udala.

“- Guztira 6,1 milioi euroan esleitu ziren 3 espedientetan (1, 2 eta 4 zenbakiak), kontratugileek gordailatutako bermeak esleitutako zenbatekoaren % 5 baino txikiagoak ziren, izan ere ekitaldi bakarreko kostua hartu zen aintzat. Kontratuatarik lehenengoan pleguek aurreikusitakoa baino berme txikiagoa onartu zen (B2 akatsa).”

Hona hemen okerra: kontratuaren prezioa kontzeptua, hau da, urte anitzeko kontratuak zer preziotan lizitatu behar ziren, gaizki interpretatu izana. Egia esan, lege guztiek, prezio kontzeptua definitzean, hauxe baino ez zuten esaten: kontratuek prezio jakin bat izan behar zutela, eta, kontratua benetan bete zedin, prezio horrek egokia izan behar zuela merkatuko prezio orokorrarekin alderatuta. Hau da, legeak ez zuen berariaz esaten kontratuaren prezioa kalkulatzeko urte guztiak batu behar zirenik. Horrenbestez, lizitatzailleek beren proposamenetan urtebeteko prezioa adierazi behar zutela interpretatu zen; hala, prezio horrek ezarri zuen esleipenaren zenbatekoa, eta ideia horretan oinarrituz kalkulatu zen bermea. Gainera, oker hori oso zabaldua zegoen, Auzitegiaren txostenek adierazten dutenez.

Egia da, beraz, aipatutako hiru kontratuetan gordailu gisa emandako bermeak esleitutako zenbatekoaren % 5 baino txikiagoak direla, ekitaldi bakarraren prezioa hartu baitzen kontuan. Udalak dagozkion neurriak hartuko ditu aipatutako okerra zuzentze aldera.

Lehenengo kontratuaren behin betiko fidantzari dagokionez, kontratazio hori arautu behar zuten pleguak idaztean hainbat zirriborro-azal erabili ziren, eta, prozesua arautuko zuen behin betiko azala osatzean, ez ziren gainerako azalak baztertu. Zirriborroetako batean oker bat zegoen; izan ere, behin betiko fidantzaren zenbatekoa 19.664 euroak zela ezartzen



zuen. Hori dela tarteko, puntuaziorik onena zuen enpresari errekerimendua bidaltzean, oker bat izan zen: azal-zirriborroa eta erakunde kontratatzaileak onartutako azala nahasi egin ziren, eta, hori dela eta, azal-zirriborro horretan ezarritako zenbatekoa (19.664 euroak) eskatu zitzaion enpresari fidantza gisa, erakunde kontratatzaileak onartutako behin betiko azalean adierazitako zenbatekoaren (108.515,034 euroak) orde. Beraz, lehenengo kontratua esleitu zitzaion enpresari, hutsegitez, erakunde kontratatzaileak esleitutakoa baino behin betiko berme txikiagoa emateko eskatu zitzaion, azal-zirriborroan adierazitako zenbatekoa ez zetorrelako bat onartutako azalean ezarritakoarekin.

“- TAO kudeatzeko kontratuan, 2,5 milioi euroan esleitu zenean, balio judizioa eskatzen zuten esleipen irizpideek garrantzi handiagoa zuten formula bidez kalkulatzeko ziren haien baino; horren aurrean, pleguek adituen batzorde baten edo berariaz gaitutako erakunderen baten laguntza aurreikusitako behar zuketena. Txosten teknikoak guztizko balioak esleitzen zizkien 3 irizpideei, pleguetan zehaztutako azpi-irizpideen balorazioa xehatu gabe.”

Egia da TAO kudeatzeko kontratuan, balio-judizioa eskatzen zuten esleipen-irizpideak garrantzitsuagoak zirela formula baten bitartez baloratutako irizpideek baino. Hortaz, pleguetan aditu-batzorde edo erakunde espezializatu baten laguntza beharko zela aurreikusitako beharra zegoen. Haatik, ez zen halako aurreikuspenik egin, pleguak idaztean oker bat izan baitzen, eta, kontratua izapidetzean inor ez baitzen hutsegite horretaz ohartu. Horrez gain, une hartan, lizitatuak eta hirugarren interesdunek ez zioten Udalari oker horren berri eman, eta, beraz, horretaz jabetu gabe esleitu zen kontratua. Udalak bere esku dituen bitarteko guztiak erabiliko ditu etorkizunean horrelako hutsegiterik berriro ez izateko.

Hona hemen lizitazio horren balorazio-irizpideak:

1.- Aurkeztutako Azterketa Teknika (0 - 35 puntu).

Azterketa horrek instalazioak mantentzeko plana eta seinale horizontalak eta bertikalak mantentzeko plana jaso behar ditu halaber, eta diru-bilketa kontrolatzeko sistema informatikoa eta sistema hori mantentzeko modua ezarri behar dira. Horrez gain, azterketak datu hauek jasoko ditu: matxurarik nahiz zabalkuntzarik izatekotan ezarri beharreko elementuen ezaugarri teknikoak eta abar.

2.- Kudeaketa-sistema, diru-bilketari buruzko datuak kontrolatzea / udalari datuen berri ematea (0 - 5 puntu).

3.- Langileen kudeaketa: langileen antolaketaren berri emango da, txanda eta lanpostu bakoitzaren egitekoak planifikatuko dira, eta lanpostu hutsen erregimena eta ordezkapenak aipatuko dira bereziki (0 - 15 puntu).

4.- Aurkeztutako eskaintza ekonomikoa (0 - 45 puntu).

Eskaintza ekonomikoa honako hau kontuan hartuta baloratuko da:

Kanon finkoa: 1 puntu gehitutako 125 euroko, edo oinarriaren zati bat (gehienez ere, 25 puntu).



Kanon aldakorra: 5 puntu ezarritako gutxieneko kanon aldakorrari (% 30) gehitutako ehuneko puntu bakoitzeko (gehienez ere, 20 puntu).

Aurretik aipatutakoa, hau da, baliatutako formulak bajaren zenbatekoa mugatzen zutela, eta Udala horretaz ohartu zela eta, ordutik aurrera lizitatutako kontratuetan, bajaren zenbatekoa mugatzen ez duten beste formula batzuk erabiltzeari ekin diola bazter utzi gabe, Udalak hauxe uste du: kasu honetan, ez zela puntuatu beharreko azpi irizpiderik ezarri, eta, horren ordez, irizpideak idaztean, baloratu beharreko elementu garrantzitsuenak zein ziren adierazi zela, orientazio gisa.

“- Udal eraikinak garbitzeko kontratuaren esleipena, 3,1 milioi eurorena, eskaintzak aurkezteko epemuga ondoren 6,5 hilabetetara gauzatu zen; araudia, ordea, gehienez 3 hilabeteko epea aurreikusten du esleipenerako.”

Kontratazio-mahaiko hainbat titular nahiz ordezkari laneko baja hartuta zeudenez eta ezin izan zirenez kide horien udako oporrak bateragarri egin, kasu jakin honetan, ezin izan zen kontratazio-mahaia behar bezain laster bildu, ez baitzegoen behar adina quorum. Horrez gain, alde batetik, erakunde kontratatzailea udaleko osoko bilkura izateak bilerak egitea zaildu zuen, eta, bestetik, eskaintzak aurkezteko epea luzeagoa zen SARA kontratua zela eta. Hori guztia dela eta, kasu jakin honetan, ez zen kontratua ezarritako epean esleitu. Hala eta guztiz ere, lizitatzaileek ez zituzten egindako eskaintzak atzera bota. Udalak bere esku dauden bitartekoak baliatuko ditu hainbat esleipen-irizpide dituzten kontratuak esleitzean legeak ezarritako epearekiko atzerapenik egon ez dadin.

“- 2015ean eraikinak garbitzeko kontratua lizitatu zen; aurrekoaren indarraldia 2015eko ekainaren 30ean amaitu zen eta luzatu egin zen, Udalak eta Durango Kirolak erakunde autonomoak zuzenean esleitu ziotelarik zerbitzua aurreko enpresa esleipendunari; zerbitzuaren kostua 2015eko bigarren sei hilekoan, hurrenez hurren, 527.429 eta 153.561 eurorena izan zen.”

Aipatutako zerbitzua Udalarentzat funtsezkoa zela uste zuen Erakunde kontratatzaileak, Udalak herritarrei eskaini beharreko zerbitzuen segurtasun- eta osasungarritasun-baldintzekin lotuta zegoela-eta. Beraz, kontratu berriaren lizitazioa izapidetzen ari zirela baina, aipatutako arrazoiak direla-eta, luzatu egingo zela ikusita, egokitzat jo zuen udal-erakinen garbiketa-kontratuaren ezohiko luzapena.

“Beste erosketak batzuk

